

**2021EKO OTSAILAREN 24KO BATZAR NAGUSIAREN
BATZAR-EGUNKARIA (ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE
FECHA 24 DE FEBRERO DE 2021 (TRADUCCIÓN)**

AURKIBIDEA

	<u>Orrialdea</u>
- Batzarra hasi da.....	2
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “Endika Montes Uña jaunaren batzarkide-egiaztagutuna.”	2
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren proiektua.”	2
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	3
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martin batzarkide andreak hartu dau berbea	6
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	10
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	16
- Euzko Abertzaleak taldeko Bagan Urtiaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	20
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	22
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martin batzarkide andreak hartu dau berbea	24
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	26
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	28
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martin batzarkide andreak hartu dau berbea	30
- Euzko Abertzaleak taldeko Bagan Urtiaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	30
- Batzarra amaitu da.....	33

2021eko otsailaren 24ko batzarra
goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 24 de
febrero de 2021 a las 09:00 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días señores y señoras., señor Diputado General, estimados junteros, y todas las personas que seguirán la Junta General por streaming. Buenos días, y bienvenidos. Antes de entrar a tratar el orden del día de hoy, decir, en cuanto a las delegaciones de voto, que el señor López Odriozola ha delegado su voto a la señora Ilardia Olangua, y que la señora Ibernia Belamendia ha delegado su voto al señor Lekerikabeaskoa Arrillaga.

Dicho esto, comenzaremos a tratar el orden del día, para lo cual el punto 1, señor Secretario, cómo dice:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Credencial

[\(R.E.11/E/2021/0000868\)](#)

Autor: JUNTA ELECTORAL CENTRAL

Asunto: Credencial de Apoderado de D. Endika Montes Uña

Documento

Principal:

[\(R.E.11/E/2021/0000868\)](#)

Expediente: [\(11/C/03/0002050\)](#)

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Batzarkide-agiria
[\(11/E/2021/0000868SE\)](#)

Egilea: HAUTESKUNDE BATZAR ZENTRALA

Gaia: Endika Montes Uña jaunaren batzarkide-egiaztagutuna

Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2021/0000868SE\)](#)

Espediente: [\(11/C/03/0002050\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: De acuerdo con la normativa vigente, se convoca al juntero D. Endika Montes Uña para que manifieste de forma fehaciente su aceptación de las obligaciones impuestas por la presente normativa, así como de los derechos que le ofrece. Solicitamos al señor Montes Uña tome el escaño correspondiente. Adelante. Bienvenido. Y segundo punto del orden del día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proyecto de Norma Foral de Presupuestos [\(R.E.11/E/2020/0002793\)](#)

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Aurrekontuen Foru Arau Proiektua [\(11/E/2020/0002793SE\)](#)

Autor: Diputación Foral de Bizkaia

Asunto: Proyecto de Norma Foral de Presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2021.

Documento Principal: [Enmiendas Reservadas Traducción Motivaciones](#)

Boletines: [Admisión a trámite](#) (4A), [Enmiendas: Notas tramitación enmiendas Presupuestos](#) (4B), [Enmiendas a la totalidad: Admisión a trámite](#) (4C), [Enmiendas particulares: Admisión a trámite](#) (4D), [Acuerdo del Pleno](#) (4E), [Dictamen de la Comisión](#) (4F), [Enmiendas: Reservadas para el Pleno](#) (4G)

Expediente: [\(11/A/09/0001857\)](#)

Egilea: Bizkaiko Foru Aldundia

Gaia: Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren proiektua

Dokumentu Nagusia: [Osotasunezko zuzenketa-eskeak Arrazoiketen itzulpena](#)

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (4A), [Zuzenketa-eskeak: Aurrekontuetako zuzenketa-eskeen bideraketari buruzko oharrak](#) (4B), [Osotasunezko zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (4C), [Zatizko zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (4D), [Plenoko Akordioak](#) (4E), [Batzordearen Erizpena](#) (4F), [Zuzenketa-eskeak: Osokorako gordetakoak](#) (4G)

Espedientea: [\(11/A/09/0001857\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Comenzaremos con el debate, para lo cual comenzaremos con los grupos que mantienen las enmiendas. Para ello, señora Fernández Angulo, del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, la palabra es suya.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Mahaiburu andrea, mahaikideak, ahaldunak, buenos días a todos.

Gaur, barriro be, Batzar Nagusietan gagoz Bizkaiko aurrekontuak eztabaidatzeko eta, halan eretxi ezker, onartzeko. Talde honek 125 zuzenketa partzial aurkeztu ditu aurrekontu-proiektuari. Zuzenketok erakusten dabe Bizkaiaiaz eta bizkaitarrakaz daukagun konpromisoa, euren arazo eta kezkekaz, baina baita Lurraldeak etorkizunean izango dituan erronka eta aukerakaz be. Konpromiso horren helburu nagusia da Bizkaiaik gaintu daizala pandemia izugarri honek itxi deuskuzan zauri sakonak, ondino be, jaun-andreok, odoletan dagozan eta Bizkaiko memoria kolektihoan marka ezabaezina grabau daben zauriak.

Horregaitik, beti egin dogun moduan, gure betebeharra da beti gogoratzea honezkero gugaz ez dagozanak eta Covid-19ren biktima izan diranak. Eta, arazoak arazo, ezin gara geldirik egon. Krisi hau hasi zanetik, eta sektore publikoak bultzatutako neurrien erresistentzia-fasearen ostean, beharrezkoa da oinarriak prestatzea eta leheneratze-faserako oinarriak ezartzea, txertaketa-prozesuak helburuak lortu ahala jarri beharko liratekenak. Bizitzak salbatzea eta enpleguak salbatzea, horixe entzun deustazue beti Ganbera honetan, eta ordena horretan.

Danok dakigu ondo be ondo Bizkaiko ekonomiaren osasuna berreskuratzea zuzenean lotuta dagoala herritarrak txertoa hartzeagaz. Eta, beraz, oinarritzkoa da kontu honetan arduratsua izatea, atzeratu ezker ezingo dogulako modu eraginkorrean hasi susperraldi ekonomikorako fasea. Eta bai, gure ustez, motelegi goaz.

Eta, aurkeztu barri deustudazan oinarritzko helburuon bila, kokatzen dira aurkeztu ditugun 125 zuzenketak, 47 milioi eurokokoak. Zuzenketa horreek datorren urteko aurrekontua hobetzeko dira, Bizkaian, gure ustez, lehentasuna daukien gaitan. Adibide bat emongo deustuet. Oin dala gitxi, makina-erremintako fabrikatzaileen alkarteak hedabideetan adierazi eban susperraldi ekonomiko ez zala helduko 2022ra arte gitxienez, eta 2021. urte hau igaroteko ekimen barriak eta handiagoak bultzatu behar zirala, administrazino guzti-guztiak

inplikauta dagozala. Bestela esanda, Gobernuko jaun-andreok, ekoizpen-sektoreetatik laguntza eske daukazue, daukaguz. Izan be, pandemiaren ikuspegitik transizino urtea izango bada be, urtea arazo askokoa izango dala jakinda, eta eragin oso negatiboa izan leikela enpresak suntsitzeko eta langabezia handitzeko.

Datozen hileetarako erronkarik handienetako bat lan-merkatua eta enpresen egoera izango dira. Horregaitik, ia 6 milioi proposatu deusueguz Bizkaiko enpresa txiki eta ertainentzako eta autonomoentzako zuzeneko laguntzen programa barriakaz lotutako zuzenketetan, osasun-krisiak gehien kaltetutakoak diralako. Danok dakizuenez, oin dala urtebete abian ipinitako zerga-neurriak, eta guk ez nahikotzat jo ditugunak, eusteko fasearen barruan, ekoizpen-sarearen likidezari eusteko ziran. Izan be, egoera horri aurre egiten gabilz, aldi bateko krisi koiunturala baino gehiago, estrukturala be badala esan geinkena, zoritxarrez. Gaur, urtebete geroago, ikusi dogu, esan dogun moduan gainera, neurriok inondik be ez dirala nahikoak, eta jokoan dagoana ez da likidezia, hori be bai, gure ekonomiaren osasuna baino, eta ez daiskula gure erakunde-sistemaren osasunak huts egin.

Kontuan euki behar dogu, gure enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei laguntzen badeutsegu, ekonomia eta enplegua babestuko ditugula, eta era berean, gure gizarte-babeseke sistema bermatuko dogula. Danok dakigun moduan, jarduera ekonomikotik eratorritako diru-sarrera publikoakaz finantzatzen da batez be, dala konsumoagaitik, BEZagaitik, lanagaitik, PFEZagaitik edo enpresa-mozkinakaitik, soziedade-zergagaitik.

Oin dala egun batzuk, Europako Batzordeak gure herrialdeari abisua emon deutso, murrizketek gehien eragiten deusien sektoreetan enpresa-kaudimengabeziak igoteko arriskuez. Horrek, Bruselak ohartarazi dauenez, langabezia haztea ekarri leike eta, ondorioz, ekoizpen ahalmena murriztu. Arrisku handia da, ETE askok jasaten dogunaren moduko eragin negatiboen aurrean erreakzionatzeko gaitasun txikiagoa daukielako. Dana egongo da martxan jarriko diran laguntza-neurrien pentsudan.

Beraz, edo Bizkaiko enpresei laguntzen deutsegu urte korapilotsu hau igaro dagien, edo prestatzen gara hurrengo hileetan Lanbideren zerrendetan sartu leitekezan langabetu askori urtenbidea eta alternatibak emoteko erronka handirako. Izan be, Bizkaiko langabeziak maila kezagarria hartu dau honezkero, ze urtebete igaro da pandemia hasi zantetik, arazo-urtea, eragin zuzena daukana lurraldeko langabeen kopuruan: 73.579 langabe dagoz Bizkaian (% 13,2).

Bizkaiko langabeziak Carmen, Nekane edo Ana izena dauka. Laespada andrea, langabeziaren dramak, eta ez da barria, emakume izena dauka orain be. Lanbideren arabera, urtarrilean 40.000 emakume baino gehiago egozan lan baik Bizkaian, edo zer esan 45 urtetik gorako langabeek (langabe guztien erdiak) edo epe luzeko langabeek urteari zelan aurre egingo deusien. Hori da aurrekontuak erantzun behar deusian erronka sozial handia, eta hori izan beharko litzateke lideratu beharreko ahalegin nagusia be, langabezia dagozan personei aukera barrien eta segurtasunaren sarea emotea oinarri daukan erronka. Estaldura sozialeko aterkina, bai, baina aukerak eta itxaropena be eskaintzen dirala, Bizkaia datozen erronketarako ondo prestatzen doalako.

Zoritxarrez, errealdadeak ez dau lekurik ixten gehiegikeriarako. Gure lurraldean jarduera ekonomikoa itzelean moteldu da, kontratu gitxi egiten dira, oin dala urtebete baino% 25 gitxiago, eta sinatzen diran gitxi horreek prekariedade handikoak dira orain be. Urtarrilean sinatutako 100 kontratutik 8 bakarrik izan ziran mugagabeak.

Desbardintasunen aurrean be ezin dogu entzungor egin, eta emakumeen eta gizonen arteko bardintasunaren aldeko konpromisoa berresten dogu. Zentzu horretan, lana, bizitza personala eta familia bateragarri egiteko plan barri bat bultzatu nahi dogu, amaieran Foru Arau bat izango dauena benetako kontziliazinorako bidea hastea lortuko daben funtsezko

zutabeak jasota. Hori dala-ta, Talde Popularretik proposatu dogu Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasun Sailaren aurrekontua 13.500.000 euro handitzea, 10 milioiko zuzenketakaz, pandemiak gehien eragiten deustien kolektiboek estaldura handitzeko, hala nola emakume langabeei, gazteei, 45 urtetik gorakoei edo luzaroko langabeei, eta prekariedadearen aurka borrokatzea, kontratazino mugagabeari laguntzeko 2 milioiko partida espezifikoa.

Hitzaldiaren erdian nagoala, itxiko deustazue gogeta baten partaide egiten. Batzuetan, nire buruari galdetzen deustat ia zelan helduko eutsan Bizkaiak osasun- eta ekonomia-krisi honi lurraldearen osasuna zendoagoa izan balitz, aspaldiko urteetan egiteko egozan eginbeharrak egin izan balira, ekonomia indartsuagoa izan bagendu eta zerbitzuen sektorearen hainbesteko menpekotasun barik, edo lurralde kohesionatuagoa izan bagina. Zalantza barik, eta horixe da nire kritika nagusia, Bizkaian zehaztugabetasunean oinarritutako eredu ekonomikoa izatearen ondorioak dira. Eta hori da ontxe be, neurri baten, aurrekontu honen gabezia nagusia, ez dagoalako jokabide sendorik pandemiaren ondorioak partekatzeke, edo berreskuratzeko faseari heltzeko eta ikusteko Bizkaia etorkizunean non egotea nahi dan.

Baina jarraitu daigun Lurraldearen lehentasunei buruz berbaz. Aurrekontuetan erakunde honek ahalegin handia egiten dau ekonomia sustatzeko, baina uste dot emaitzak eskasak dirala. Beste batzuetan ekintzailtza Lurraldearen trakzio-elementu gisa garrantzitsua dala azpimarratu izan badogu be, oraingoan uste dogu zeregin erabakigarria euki leikela errekupeartzeko fasean. Uste dut danok dakigula mundua aldaketa handiak egiten dabilea, pandemiak bizkortu egin dituanak, eta aldaketa horreek zerikusia daukiela osasunaren garrantziagaz, klima-aldaketaren aurkako borroka, pobrezia desagertzeagaz edo eredu ekonomiko jasangarri barriak bilatzeagaz. Hori da, azken baten, bizi eta politika egin behar dogun mundua.

Nire taldekook uste dogu, erronka horreek lortzeko, beste ekintza batzuk batera, ekintzailtzak funtsezko rola euki leikela eta euki behar dauela, eta, horregaitik uste dogu garrantzitsua dala apustu hori handitzea, etorriko diran aldaketetarako komunikazino-elementu gisa. Horreek dira, neurri handi baten, aurrekontua zuzendu eta sustapen ekonomikora 7.500.000 euro gehiago bideratzera bultzatzen gaituen erronkak. Gure ETEen lehiakortasuna sustatuko dabenean politika barriak bultzatzea bezalako erronkak, digitalizazino handiagorantz eboluzionatzen joan daitezanean, eta nazinoartera zabaldu daitezanean etengabe eta modu iraunkorrean bultzatzea be.

Era berean, aurrekontuan saltoki txikiak indartzeko partida gehiago sartu gura izan doguz, pandemiaren ondorioz egoera dramatiko bizi dabelako, Bizkaiko merkataritza tradizionalari laguntzeko plan integralagaz. Eta unean uneko arazoak gorabehera, danok bat gatoz aurrekontuen arloan dAna lotuta dagoala. Berba egin geinke pandemiaren ondorioen aurka borroka egiteaz, datozen erronkei aurre egiteko gaitasunaz, baina hori guztia ez litzateke eraginkorra izango Bizkaian azpiegitura egoki eta hobeak ez baditugu.

Foru Gobernuak ezin dau urtez urte ahaztuten jarraitu Errekaldeko zubibidea botateko konpromisoa, eta, horregaitik, 2.000.000 euroko zuzenketak egin ditugu Errekaldeko saihesbidea hasteko. Eta zer esan metroa Errekaldera, edo Galdakaora eroateko, Covid-19aren atxakia hori eta gaur eguneko krisi-egoera proiektuok gelditueko, ez, gure ustez ez, guztiz kontrakoa. Eta horregaitik, 6.000.000 euroko balioko zuzenketak gehitu ditugu, metroaren 4. eta 5. lineakaz daukagun konpromisoa adierazteko, eta 6. linea barriaren azterketak hasteko, metroaren gainerako konektibidade-lineak Meatzealdeagaz lotuko leukena.

Amaitzen noa. Oingo krisi-egoera dala-ta, gero eta argiago agertzen da Bizkaiko arazoa esaten dana, hainbat abiadurako Bizkaiaren arazoa. Derrigorrezkoa da lurralde-kohesinoa handitzea, eskualdeen arteko aldea txikituteko. Lurralde txikia izan arren, neurrian, nire ustez handia da historian eta espirituari, eta eskualdeen arteko ezbardintasun bidegabeak onartezinak dira. Alde horretatik, Aurrekontu honek ez deustso arazo horri behar bezain egoki

aurre egiten. Lurralde anitza eta heterogeneoa garala ulertu behar da, eta eskualde bakotzak bere estrategia berezia behar dauela, batez be Ezkerraldean eta Enkarterrietan, historikoki Foru Gobernu honek baztertutakoak. Horregaitik, aurkeztu ditugun zuzenketen bidez, Ezkerraldea edo Enkarterriak bezalako eskualdeak aldentuta ez geratzea gura dogu, atzean ez geratzea.

Talde Popularretik kulturaren aldeko apustua egiten dogu, talentua erakarteko elementu gisa. Gure ustez, aukera handia euki geinke trakzino-proiektuak bultzatzeko, adibidez barrikuntza gastronomikoko zentro bat garatzeko, gure lurraldea barrikuntza gastronomikoaren erreferente izan daiten.

Ontxe amaituko dot. 2021 hau ez da urte bat gehiago izango, ez edozein urte. Gure ustez, Aurrekontu honek pisu apartekoa dauka, eta bertan txertatzen diran politika publikoek finkatuko dabe Bizkaiak hurrengo urteetan izango dauen pisua. Ziurgabetasun une honetan marraztuko dira gure etorkizuna definituko daben ildo nagusiak. Eta, zentzu horretan, eztabaida hau koherentziaz, seriotasunez eta erantzukizunez landu gura izan dogu. Hartu kontuan gure zuzenketen bitartez gure ustez Aurrekontu honek behar bezala garatzen ez dituan eta Bizkaiaren orainerako eta etorkizunerako garrantzitsuak diran alderdiak zuzendu gura izan ditugula. Eta horregaitik uste dogu bizkaitarrek merezi dabela, merezi dogula, aurrekontu hobea, euren beharizanen alde egingo dauen aurrekontua. Argi daukagu posible dala pandemia egoera honetatik urtengo dan Bizkaia. Bizkaiak Lurraldearen erakargarritasuna berreskuratuko deutsan politika fiskala behar dau, politika ekonomiko, aurrekontuko eta sozial eraldatzailea.

Eta, aurrekoari amaiera emoteko, kaleko errealdadeari lotutako aurrekontua be bai. Gobernu bat behar dogu, oingo krisiaren aurrean albotik igaro gura dauena, baizik eta administrazioaren beharrei ez eze, bizkaitarren beharrei be erantzungo deutsena. Mila esker.

Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Fernández Angulo. La representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martin, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTIN** andreak: Gracias señora Presidenta, y buenos días a todos.

El 3 de febrero debatimos en esta sede la propuesta de enmienda a la totalidad que Elkarrekin Bizkaia hacía al proyecto de Presupuestos presentado por la Diputación para el año 2021. Tal y como señalamos en aquel debate, este proyecto de Presupuestos, para Elkarrekin Bizkaia, no refleja ni responde a la realidad que vivimos. Y en ese sentido, hemos presentado un total de 310 enmiendas parciales que responden a las necesidades de la población de Bizkaia en la actualidad, y que orientan el Territorio hacia un modelo social y económico sostenible, y justo.

310 zuzenketa, 306.500.000 euroko baliokoak, hau da, aurrekontuaren % 19,2 mobilizatzea. Seguruenik, herritarrek behar dabena baino askoz gitxiago, baina, gure ustez, foru gobernu honek egin dauena baino askoz gehiago. Ekintzetarako garaian gagoz, eta ez berben garaian, eta ez dau balio zuen diskursoan sartzea zaintza-eredua aldatuko dozuela, klimaren krisiaren aurka borrokatuko dozuela edo ez dozuela inor atzean itxiko. Hitzak edukiz bete behar dira, eta Aurrekontu honetan edukirik arean be ez dago.

Begira, urtebete baino apur bat gitxiago da Wuhanen borrokatzen egozan hori gu geu biziten hasi ginala. Arazo handiko urtea igaro dogu, eta argi dago beste asko aukiko ditugula, urte honetan erabagi politikoek markau dabez bai pandemiari aurre egiteko ditugun baliabideak, bai krisi sozial eta ekonomiko honetatik zelan aterako garan. Erabagi politikoek

markaiko dabe urteera izango dan hemendik ahal dauenak ahal dauen moduan konpondu daitela, edo Foru Aldundia guztion eskubideak defendatzeko eta babesteko horma izango dan, eta, egia esan, oso txarto hasi zarie.

Lehen defenza-muga udalak dira, hain zuzen be herritarrengandik hurren dagozan erakundeak diralako eta osasun-krisiak eragindako beharrei erantzuteko funtsezko zeregina beteten dabelako. Eta zuek babesten dozuen arrisku partekatua printzipio horrek antz handiagoa dauka suizidio kolektiboko proiektu batez. Diru-bilketaren beherakadaren erantzuna ezin da izan toki-erakundeen finantziarioa murriztea, hain zuzen be, zorpetzeko gaitasun txikiena daukienak diralako.

El equipo de gobierno habla de respeto a la autonomía municipal, pero no se toma en serio las competencias municipales. Por ello, proponemos a través de 6 enmiendas incrementar la dotación económica que recibirán los ayuntamientos para el año 2021, 81 millones más. Para dar respuesta a las necesidades de dificultades económicas derivadas de la Covid en la población o pequeñas empresas. El no aumento de la financiación a los municipios se convierte en recortes y vulneración de derechos, en niveles de protección más bajos. Y la acción política de este Gobierno debe buscar lo contrario, reforzar los servicios públicos, los servicios públicos municipales, pero también las competencias comarcales.

Menpekotasuna daukientzako egoitzak indartzea da Covidak atzeraezin bihurtu dauen zereginetako bat, eta, zentzu horretan, 17.500.000 euroko balioko 8 proposamen egin ditugu adinekoek eta menpekotasuna daukien pertsonen egoitzetan eta eguneko zentroetan jasoten daben arreta hobetzeko.

Zelan egin gura dogu hori? Ba lehenengo eta behin, egoitzetan zuzeneko arreta emoten daben pertsonen kopurua handitu gura dogu, eta neurri horrek eragin zuzena dauka adinekoek jasoten daben arretaren kalidadean; ze horretara egoiliar bakoxtari arretarako denpora gehiago emoten jako, izan be, arreta indibidualizatuan denpora gitxien emoten dauen lurraldea gara, egunean ordubete pertsonako. Denpora hori gitxi da, guztiz eskasa.

Horregaz batera, egoitzetako plaza publikoen kopurua handitzea proposatzen dogu, eta argi dago bai arretaren bai langileen lan-baldintzen parametroak ez dirala bardinak egoitza publikoetan eta pribaduetan. Argi dago batzuek eta besteek ez deusiela bardin eutsi Covidaren erasoari. Eta hori agorikoa da, ze gaur egun, Saila ez da kapaz izan Covidak sareko egoitza bakoxtean euki dauen eraginari buruz datu egiazkoak eta gardenak emoteko. Osakidetzak datuon aurka be egin dau. Hain da handia gobernu honek egoitzak kudeatzen dabezan enpresa pribatuakaz daukan menpekotasuna, gai dirala interes ekonomikoa, euren irudia eta iraupena Bizkaiko adinekoen bizitzaren gainetik jartzeko.

Egoitzetan zer gertatu dan ikertzea proposatu dogu, eta zuek ezetz esan dozue. Gaur, egoitza-zentroak ikuskatzeko eta kontrolerako lana kuantitatiboki hobetzea proposatzen deusuegu, baina baita kualitatiboki be, eta barriro be ezetz bozkatuko dozue, eta, beitu, foru-diputadua tematu arren, egoitzetan senideak dituzten senideen % 19,9k bakarrik uste dabe egiten diran ikuskapenak nahikoak dirala, % 19,9k. Eta Ermuko, Barakaldoko, Zamudioko edo Muskizko egoitzetan gertatutako errealidadea ostonduten, manipulatzeko eta bihurtzeko gehien ahaleginduta be, eta familiak eta zerbitzuen erabiltzaileak ordezkatzeko dabezan erakundeen irudia kaltetzen gehien ahaleginduta be, errealidadea tematia da, eta agirira dator da protesta, greba, eta baita be heriotza itxuran. Eta egia helburu politikoakaz edo lagunen interes ekonomikoak salbatzeko manipulatzeko oso zekena da Gobernu honen aldetik. Bide txarra aukeratu dozue, eta guzurretik gatxa be gatxa izango da arreta-sare bat eregitzea, benetan kalidadekoa den zaintza-eredu bat, zuek sinistuz gura deuskuzuen moduan.

¿Quiere participar en la creación de un modelo de atención digna que cumpla con los principios de calidad y dignidad? Pues entonces no se engañe y escriba nuestras

propuestas, que son también las del sector, las de las familias y las de las personas usuarias. Proponemos más de 20 millones de euros para esto, dignificar la atención que se presta en el hogar, 20 millones para dignificar las condiciones de los cuidadores, y para valorar el trabajo que estas personas realizan a diario. 20 millones que permiten respetar el derecho a decidir el lugar donde las personas quieren ser cuidadas. 20 millones para promover una vida autónoma, así como la participación social de las personas en situación de dependencia. Transformar el modelo de cuidado no es buscar soluciones de lo concreto a largo plazo, sino ir a todas las tareas de cuidado, y apoyarlas. Es decir, que son tareas que pueden hacer la vida más sostenible. Hay que tener en cuenta que son trabajos precarios, por supuesto, porque están feminizados.

Eta osasun-krisiak gauzak okertu besterik ez ditu egin guretzat. Simone de Beauvoirrek esan eban moduan, "Ez ahaztu inoiz nahikoa izango dala krisialdi bat emakumeen eskubideek atzera egin dagien. Eskubideok ez dira inoiz eskuratzen, zuen bizitza osoan erne egon beharko dozue ". Eta halan da eta halan izan da. Eta krisiaren egoeraren inertzia gure eskubideak murrizten jarraitu ez daian, bardintasunerako partidak 3 milioi euro baino gehiago handitzea proposatzen dogu, erantzunkidetasuna sustatzeko, ahalduntze feministako eskola abian jartzeko, indarkeria matxistari aurre hartzeko, edo indarkeria matxisten biktima diran emakumeei emoten jakezan zerbitzuak indartzeko eta zabaltzeko. Aurrekaririk ez daukan osasun-krisia izatea ez da arrazoia Foru Gobernuak bardintasunaren arloko ekintza politikoa alde batera ixteko. Antza danez, Bardintasuneko sailburuaren jarraibideak beteta erabagi dozue, esaten dauenean ez dela patriarkatua sartuko, ze jakina, emakumeok egunero jasaten dogun desbardintasun- eta diskriminazio-egoeraren funtsezko arrazoia horixe da. Baina feminismoan be ez dala sartuko esan dau, eta hori da gaur egun horri aurre egiteko dagoan txerto bakarra. Non dago hemen Aldundia, emakumeen eskubideen defentsarako gidari gisa? Aurrekontuokaz ez deusazue heltzen dasberdintasun-egoerari behar dauen neurrian, ez dituzue behar diran baliabideak jartzen krisi honetatik urtetea betiko normaltasunera itzultzea izan ez daiten, eta guk, emakumeok, ez dogu barrero izan gura ez hildakoak, ez prekarioak edo pobreak. Ez dogu nahi guretzat, baina ez dogu nahi Bizkaiko gizarte osoarentzat be, pertsona bardinak beti txarto tratatzen dituan sistema ekonomiko eta sozial horren biktima dalako.

Eregi daigun beste normaltasun bat, danontzako lekua dagoana, bardintasunari jagokonez, justiziari jagokonez. Eta, alde horretatik, guretzat, baldintza duinetan eta kalidadeagaz lan egitea kontuan hartu beharreko elementua da, eta, gainera, eskumena daukagun aldetik hasita, hau da, hau da, enplegu publikoa sortzearen aldetik.

En ese sentido, proponemos aumentar el empleo público en los sectores fundamentales y estratégicos, 40 millones de euros más en empleo público, para reforzar la red de atención a las personas mayores, para fomentar el cambio de modelo de atención, para reforzar la protección del medio ambiente, para reforzar la lucha contra los delitos medioambientales, para hacer frente al reto de implantar Batuz sin contratación temporal. Y un largo etcétera, empleo público, empleo de calidad, pero para puestos públicos, y no para puestos que dados a dedo, que los únicos que han crecido en los últimos años. Insistimos, este Presupuesto parece un Presupuesto de un año sin pandemia o crisis, pero a pesar de cerrar los ojos, la pandemia y la crisis económica están ahí.

Bizkaian 73.579 persona dagoz behar barik gaur egun, % 13,2ko langabezia-tasa. Eskualde ahaztuenak langabezia-tasaren % 16tik gora dagoz, eta ezin ditugu ahaztu ERTEn dagozan personak, 20.494 inguru dira-ta honezkero. Bizkaiko enpresen % 52k adierazi dau gaur egungo eskaera-maila baxua edo oso baxua dala, eta esportazioek behera egin dabela enpresa esportatzaileen % 38rentzat.

Egoera salbuespenekoa da, eta salbuespeneko neurriak behar ditu, eta, hau da, ahalik eta aurrekonturik handiena mobilizatu beharko geunke BPGk hain baxu jarraitu ez daian, eta gure ekoizpen- eta enpresa-sare osoa zulo batera arrastaka eroan ez daian, gero hortik urtetea gatxa be gatxa izango da-ta. Eta Elkarrekin Bizkaitik ondo dakigu krisialditik aterateko

ez dala bertan gehiago hondoratu behar, baliabideak mobidu baino, eta horregaitik atera ditugu zuen aurrekontutik 24 milioi euro gure enpresak berreskuratzeko bidea emongo daben laguntza eta diru-laguntzetarako. 14 milioi krisian dagozan enpresa estrategikoen erreskateko funts bat sortzeko.

6 milioiko partida hasteko, tokiko merkataritzari eta ostalaritzari laguntzeko. Zuzeneko laguntzak dituen erreskate-plana da, eta jarduera baimenduta daukien arren, praktikan diru-sarrerarik ez daukien sektore ekonomikoei be eragingo deusie; esate baterako, bidaia-agentziei edo ekitaldien sektoreari, edo kultura-sektoreari. Azken horretan, Aldundiak Guggenheimi eta haren edukitzaileari hamarrena ordaintzea lehenesten jarraitzen dau, eta ez gehiago behar daben ekimen apalagoei. Eta ezin da izan kulturako 10 eurotik bat Guggenheimera joatea, eta gure ondarea, kulturala edo industrial, mantentzeko eta balioan jartzeko inbersinoak apurrak izatea.

4 milioi euro enplegua sustatzeko, eta gure eskualdeetako enpresa estrategiko eta traktoreei laguntzeko, eta, gainera, euron kapital sozialean sartzeko. Tapia sailburuak berak be iradoki dau hori noizbait, eta Frantziak eta Alemaniak pandemia honetan egin izan dabe. 800.000 euro zuzeneko laguntzetarako, gure nekazariei eta abeltzainei laguntzeko, eta, aldi berean, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa sustatzeko, animalien ongizate-ziurtagiriagaz.

Al mismo tiempo que apostamos por la reactivación económica, fomentamos la transformación del modelo productivo con nuestras propuestas. 10 millones para impulsar la implantación de medidas de ahorro energético en las empresas de Bizkaia. 6 millones para ayudar a las viviendas o pequeñas empresas de Bizkaia a implantar medidas de eficiencia energética. Además de las subvenciones para la modernización y transición de nuestra industria, para ayudar a las medidas de eficiencia energética y el uso de material, o la economía circular. Son los ciudadanos los que deben ser protagonistas de la transición energética y no el viejo oligopolio de siempre.

Eta krisi klimatikoaren aurkako borroka horretan, mugikortasun-eredua aldatzeak garrantzi handia dauka, eta Foru Gobernu honek ez deutso aurrekontu honetan merezi dauen garrantzia emon. Garraio publikoaren zerbitzuak ez dau apur bat be hobera egin, gabeziak bardinak dira ondino, eta oso nabarmenak dira ondino be eskualde batzuetan. Eta egoera horri aurre egiteko, milioi bat planteatzen deusuegu Enkarterri eskualdeko lineak eta maiztasunak handitzeko, edo 3 milioi Ezkerraldeko eta Meatzaldeko lineetan edo EHUri zerbitzua emoten deusian linean maiztasunak handitzeko, egunean zehar pilaketak izaten ditu-eta, gaur egun daukagun pandemia-egoeran inplikatzeko arriskuagaz. Eta Gobernu honek ez dau ahaleginik bape egin herritarrek garraio publikoan daukien konfiantza berreskuratzeko.

Jente askok ez dae erabilten birusaren transmisioan segurtasun falta sentitzen dauelako. Erabiltzaileen ia erdiak galdu dabez. Gaur egun be, LABIk emondako gomendioen ostean, linea batzuetan pilaketak izaten dira, eta ez dabe hatzamar bakar bat be mobidu, eta talde honek zerbitzuak eta segurtasun-neurriak areagotzeko egin dituan proposamenen aurrean, behin eta barrero kontra agertu zarie. Gaur, barrero be, horri buruzko proposamen bat dakartzuegu, 2 milioi segurtasun-neurriak ezartzeko, lanaldien arteko garbiketaz-zerbitzu gehigarria barrero ipinteko, beste garraio-bide batzuek egiten daben moduan, RENFEk, besteak beste. Autobusetan gel hidro-alkoholikoa jartzea, eskuoihaltxoak banatzea baino askoz be merkeagoa eta jasangarriagoa. Mobikortasun jasangarriaren alde egitea garraio-zerbitzu publikoaren alde egitea da, eta hori aurrekontuetan nabarmendu behar da, eta ez hedabideei egindako adierazpenetan bakarrik, orain arte egin dozuen moduan.

Eta Foru Gobernu honek garraio publikoaren aldeko apustua egingo baleu, partida bat legoke Metroko 4. eta 5. lineak egiteko, baina ez dago halakorik, eta Gobernu honek gurago dau proiektu hau Europako funtsen zain ixtea. Elkarrekin Bizkaiaren apustua hor dago,

garraio publikoan, eta horregaitik 5 milioi jarri ditugu proiektu horri ekiteko. Eta, parkatu, baina baliabide ekonomikoak badagoz Metroaren 4. eta 5. lineen proiektua aurrera aterateko, eta danok planteau dogu. Lehentasun kontua da, ibaipekoa edo metroaren 4. eta 5. lineak. Supersur edo denden erreskatea. Osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisi bati aurre egin behar deusagu, eta ez da kontserbadorismotan geratzeko unea; kontua da behar diran baliabide guztiak jartzea krisia gainditzeko eta Bizkaia etorkizun ziurrera eta bizi-itxaropenera bideratzeko, danontzat duinak. Eta zuek aurrekontu horregaz Bizkaia osasun-krisiaren aurretik bizi izan dogun prekariedade-egoera berera daroazue.

Ikusten dozuenez, gura badozue, ahal da. Hemen arazoa da zuek aspaldi uko egin deusazuela Bizkaiko herritarren eskubideen defentsa izateari, eraikitzaileen, bankuen, inbersino-funtsen eta multinazionalen eskubideen defentsa izateko. Bizkaiarentzat lan egiteari itxi deusatsua, eta krisi-garaian, dirua falta danean, askoz bee agirikoagoa da, gitxiago dago banatzeko, eta zuek, aurrekontu-partidak bezala, badakigu nogaz konprometiduta zagozien. Aurrekontu hori ez dago egoerak eskatzen dauen mailan, eta ez da Bizkaiko biztanle guztiak merezi daben aurrekontua. Bizkaiko etorkizuna eregiteko oinarriak ezartzeko urrezko aukera euki dozue, eta zuen esku dago aukera hori aprobetxatzea edo zaborretara botatea. Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora De Madariaga Martin. A continuación, turno del grupo Euskal Herria Bildu. Por lo tanto, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Gracias, señora presidenta, buenos días a todos.

‘Oportunidades perdidas’ es la expresión que nos viene a la cabeza para caracterizar el proceso de debate presupuestario de 2021. Una oportunidad perdida para introducir los cambios y definir las nuevas prioridades imprescindibles para hacer frente a esta situación de incertidumbre a la que todos nos referimos en esta particular situación en la que vivimos y para hacer frente a los problemas emergentes y creados por la Covid-19.

Aukera galdua. Ezin dogu bestela kalifikau 2021eko aurrekontuak eztabaidatzeko eta onartzeko prozesua. Aukera bat euki dogu Covid-19ak gu guztiontzat ekarri dauen guztiaz hausnartzeko, bai herritar guztiontzat, bai jarduera instituzionalarentzat. Ezin dogu ezer gertatu ez balitz moduan jarraitu, baina Foru Gobernuari eusten deusienek, EAJK eta PSEk, ez dabe proposatutako aurrekontuen txintik be aldatu gura izan. Oposizinoaren zuzenketa guzti-guztiak baztertu dira. Eta ez da herritarren alegaziorik bat bera be onartu.

Había propuestas muy diferentes entre las alegaciones: el bidegorri Bilbao-Getxo, la eliminación de la variante de Rekalde, algunas carreteras, la creación de empleo público, o el proyecto para la inclusión presentado por la Fundación Síndrome de Down. Algunos necesitaban bastante dinero, otros poco, pero era igual. Su respuesta ha sido que está recogido, que no hace falta más dinero, que lo está haciendo. Es decir, que sus presupuestos son muy buenos. Algunos ciudadanos se atreven a poner en duda algunas partidas y a ustedes les da igual. Ni caso. Y esta es la mala novedad de esta legislatura. Ya que en la legislatura anterior se aceptaban una, o dos alegaciones. Ahora ninguna.

En el Pleno anterior planteamos que hemos actuado con responsabilidad, y que hemos intentado llegar a un acuerdo con los partidos que apoyan al Gobierno Foral. Así lo hicimos al presentar la propuesta de mínimos, y también al presentar dos enmiendas a la totalidad, porque teníamos claro que los presupuestos necesitaban modificaciones imprescindibles.

Sin embargo, no cedimos, y hemos presentado enmiendas parciales, porque EH Bildu no da por finalizado el debate de los presupuestos con las enmiendas a la totalidad.

El proceso consta de dos fases: la primera es la que debatimos en el Pleno anterior, es decir, si el proyecto se devolvía o no. La segunda es, una vez aprobado el proyecto básico, estudiar, debatir y votar las enmiendas parciales.

Y en esta segunda fase también hay que actuar con responsabilidad. EH Bildu, actuando con responsabilidad, presentamos enmiendas parciales que recogían propuestas de mejora del proyecto de presupuestos en los diferentes Departamentos.

Esan dodan moduan, ez zen zuzenketarik onartu. Baina kontua ez da onartu ez izana bakarrik, eztabaidatu be ez dira egin, eta ez da errazoi seriorik aurkeztu atzera botateko. Eta hori, gure ikuspuntutik, ez da arduraz jokatzeari. EAJk eta PSEk zuen gehiengoa erabili dozue aurrekontuetan aldaketarik ez onartzeko. Oposizinoen taldeek aurkeztutako 600 zuzenketa baino gehiagoren artean, batzuek alegazioak be jasoten dabez herritarren bitartez, ez ete da egon bat bera be onartzeko modukorik? Gatxa da ulertzen.

Las enmiendas parciales que ha presentado EH Bildu, algunas estaban recogidas en la propuesta de mínimos presentada para la negociación, y que, como dije en el Pleno anterior, hubo acercamiento. Creíamos que a través de enmiendas parciales aún existía la posibilidad de llegar a un acuerdo. Pero no, PNV y PSE tenían decidido decir que no a todos. Y en eso también está claro que tenemos diferentes maneras de entender la negociación.

Negoziatzen bat zer dan ulertzeko modu desbordinak ditugu. Zuentzat dana da 100 edo 0. Edo dana edo bapez. Eta EH Bilduk argi dauka negoziatzen baten alde guztiek uko egiten deusielako zerbaiti, eta gaitxienekoen akordioa ez dala ez alde batekoa ez bestekoa. Batzuentzat 30 izango da, besteentzat 60, baina 0 edo 100 pentsatzen badogu, ez dago akordiorik lortzeko aukerarik. Espero daigun etorkizuneko aurrekontu-negoziatzen beste modu batera ulertuko dozuela akordioak lortzeko modua, osterantzean gatxa izango da akordioak lortzea.

EH Bildu, de cara a los presupuestos de 2021, fijó cuatro ejes, como dijimos el otro día.

Consolidación de los servicios sociales públicos.

Impulsar la transición ecológica.

Impulsar el empleo digno.

Promover el desarrollo socioeconómico equilibrado de las comarcas de Bizkaia.

Y en función de ellas hemos planteado enmiendas parciales:

De cara a la consolidación de los servicios sociales públicos:

Hemos propuesto ya la creación de un fondo especial para iniciar las adaptaciones que requieren las residencias de personas mayores, tanto organizativas como de espacio físico y las necesidades de personal. Es una medida urgente. Todos asumimos que es imprescindible hacer cambios en las residencias. ¿Y a qué esperamos?

En la negociación se mostraron dispuestos a ello PNV y PSE, pero ¿cuál ha sido su respuesta? ¿Que hay partida suficiente en los presupuestos. ¿Partida suficiente? Hay algo

menos que el año pasado para las residencias de mayores, porque 2021 no es año bisiesto y hay un día menos.

Segunda. Hemos hecho una propuesta para duplicar el número de inspectores de 7 a 14.

Oposizino guztiak eskatu dogu ikuskatzaileen kopurua handitzea, eta Batzar Nagusiok eurok be urrian onartu eben egoitzetan ikuskatzailetza indartu beharra.

¿Y cuál ha sido su respuesta? Que no hace falta, en el Plan General de Inspección participa más personal, y también personal externo, subcontratado. ¿Qué quieren decir, que son los trabajadores externos los que realizan las inspecciones?

Y otra cuestión. Para ello, retirábamos del crédito general 500.000 euros; por lo tanto, no había de dónde quitar ese problema. Lo que ha faltado es voluntad política para contratar más inspectores.

Tercero. Incrementar la transferencia al IFBS para crear plazas públicas para mayores: por un lado, para mantener la de Gallarta para mayores, pero también para crear más plazas públicas para mayores, menores de edad o con diversidad funcional. Y también para contratar más personal.

¿Y por qué? Porque hay necesidades. La Diputación dice que no, pero ahí está la prestación vinculada al Servicio, que cada vez se lleva más dinero, y los perceptores de esa prestación están esperando una plaza pública. Es decir, si hay necesidades.

Eta familia-inguruneko zaintzarako prestazinoaren partida ez handitzea be proposatu dogu, eta horregaz batera, egoitzak hobetzea. Eta zergaitik planteau dogu hori? Prestazino horretan aldaketak egin behar diralako. Ezin da menpekotasuna daukien personen zaintza emakumeen esku itxi. Etxeko zaintzak zelakoa izan behar dan hausnartu behar da. Etxean, bai, baina zaintzaile profesionalakaz, izan Etxeko Laguntza Zerbitzukoak, izan beste laguntza profesional batzuk. Menpetasuna daukien personak etxean ondo zainduta egoteko eta emakumea-zaintzailea binomioa hausteko modua da. Eta horregaitik eskatu dogu laguntza personalerako prestazinoa handitzea be.

Las propuestas para impulsar la transición ecológica las hemos presentado en tres Departamentos:

Por un lado, en el Departamento de Sostenibilidad y Medio Ambiente Natural.

- Planteamos la apertura de una línea especial de ayudas para la promoción de la diversidad forestal, así como la propuesta de plantación de bosques autóctonos en montes públicos.

- Planteamos la propuesta de creación de infraestructuras verdes.

- Mantenimiento de las subvenciones municipales para la realización de proyectos de eficiencia energética y creación de una nueva para el impulso de las comunidades locales de energía.

Todas estas medidas están destinadas a luchar contra el cambio climático. Y su respuesta ha sido que estaban bastante de acuerdo con el planteamiento, pero que el problema era de dónde quitábamos el dinero (salarios, Interbiak, plan informático).

Halanda be, Sail honetan egindako proposamenen artean, lehenengo sektorearen alde egin ditugunen artean, zuzenketa bat izan da ICM laguntzak handitzea, 200 €tik 400 €ra Ha bakoitxeko, Europak finkatutako gehienekoa. Hori da negoziazioetan onartzeko prest egon zinen beste zuzenketa bat, eta orain ezetzerako argudioa izan da ia nondik kenduko dogun dirua. Baina kontua da milioi bat eta 400 mila euro kreditu globaletik kentzen genduala, beraz ez dago arazorik.

Hemos presentado más enmiendas. Transferencias a entidades locales fuera del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, para garantizar depuradoras o suministros de agua.

O en el caso de los residuos, para que el ayuntamiento forme parte de la política de residuos. Tenemos un enorme reto en las políticas de residuos, y los ayuntamientos tienen mucho que decir de cara a impulsar la reducción, la reutilización y el reciclaje de residuos. Pero ustedes todo de la mano de Garbiker. Y algunas cosas las tendrá que hacer Garbiker, pero siempre en colaboración con los ayuntamientos, y otras actuaciones las tendrán que hacer los ayuntamientos, si al menos queremos que estas medidas sean efectivas.

Por otro lado, hemos planteado en el Departamento de Transportes y Movilidad Sostenible y en el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, porque la transición ecológica exige sin duda impulsar otro tipo de movilidad:

Y hemos planteado las nuevas líneas de Metro. Para agilizar el proyecto constructivo de las líneas de Galdakao y Rekalde (transferencia de 1 millón a Euskal Trenbide Sarea).

O la tarjeta única. Las conclusiones se sacarán del estudio sobre el billete único, hace mucho tiempo que deberían haberse sacado, pero saldrán, y entendemos que es urgente que ya empezar a tomar medidas concretas para impulsar su implantación.

Garraio publikoa bultzatzeko eta auto pribatuaren erabilera geldiarazteko neurriak. Eta barriro ez, orain itxaron egin behar dalako. Noiz arte itxarongo dogu txartel bakarra bultzatzeko?

Hemos recibido también una alegación ciudadana que propone la partida para la realización de las primeras obras del bidegorri Bilbao-Getxo.

Y otra, otra alegación para el estudio informativo de la variante de Rekalde.

Y su respuesta ha sido: la partida de bidegorris está incluida en Bilbao-Getxo y el estudio, sobre Rekalde, se está realizando en Bilbao. Estamos acostumbrados a escuchar mentiras. Veremos cuándo se materializan realmente estas propuestas.

Impulsar el empleo digno está en boca de todos, pero la vía más eficaz para impulsar el empleo digno es la creación de empleo público. Y, para ello, hemos realizado varias propuestas para publicar algunos servicios subcontratados. Sabemos que no se puede hacer todo de un día para otro, pero hemos planteado en diferentes Departamentos que se inicie el proceso de publicar algunos servicios.

Y, así, en Acción Social hemos planteado la gestión directa del Servicio de Coordinación de Urgencias Sociales. Es un servicio relativamente nuevo, es una actividad continua, y eso hay que hacerlo a través de los empleados públicos.

O hemos propuesto poner en marcha el proceso de evaluación de la discapacidad de forma directa, y hemos elegido ésta y no otras, porque ese contrato finaliza en marzo. Por lo tanto, es posible realizar una evaluación de otra manera una vez finalizado el contrato.

Pero a ustedes no les importa, su respuesta siempre ha sido que no se puede.

Para traducir directamente los textos de la Diputación Foral de Bizkaia, lo hemos planteado creando plazas de traductor. Cada vez va más dinero ahí, y creemos que esa actividad permanente debe hacerse a través de sus puestos públicos. Y también hemos solicitado la creación de plazas públicas para llevar a cabo los planes de uso del euskera.

En el Catastro siempre planteamos que se haga a través de empleados públicos, o hemos planteado también que se haga un estudio sobre la publicación de las líneas de Bizkaibus con una línea concreta, antes de la licitación del proyecto Uribe Kosta y Ezkerraldea - UPV.

O hemos hecho nuestra la alegación presentada por LAB, y hemos planteado no anular las plazas, porque hay que tener en cuenta que en 2021 habrá menos plazas públicas, y también crear nuevas plazas.

Eta enplegu publikoa sortzeko eta prekarietatea murrizteko egin ditugun proposamenen aurrean, EAJren eta PSEren erantzuna argia izan da: ezezko borobila.

Propuestas relacionadas con la igualdad. Hemos propuesto invertir 2,7 millones más en acciones directas de igualdad en los diferentes departamentos. Para llegar al 1% del presupuesto de gestión propia que establece la Norma Foral de Igualdad faltan 1,7 millones en estos presupuestos, pero eso, al menos ese 1%, debe ser el objetivo de repartir ese 1% de forma equilibrada entre los diferentes departamentos, y a día de hoy no se da así.

Por eso hemos propuesto, en los diferentes departamentos, partidas para el desarrollo de acciones directas para la igualdad. Y ustedes dicen que no, a veces han dicho que se hace, de nuevo mentira, o que no está en la Norma Foral de Igualdad. Pero entre nuestras propuestas, hay al menos dos que recoge la Norma Foral de Igualdad.

Una, combatir la brecha en el salario de los empleados públicos, o la segunda, arremeter contra la brecha de género en el sistema fiscal. Pero ustedes, que no. Y la verdad es que no me sorprende que no cumplan el 1% fijado por la Norma Foral de Igualdad.

Egoera erabat aldatu da azken urtean. Jendearen lehentasunak aldatu dira, baina ez aurrekontuarenak.

Y reflejo de ello son el Programa de Empleo y los programas del Departamento de Promoción Económica. Mantienen ustedes los programas de siempre, programas que no han creado empleo de calidad.

Han dicho que no a reforzar las medidas de los planes de Encartaciones y Margen Izquierda, o para elaborar el Plan Industrial de Arratia, y empezar a desarrollarlo, o a reforzar el trabajo realizado en el ámbito de Bizkaia Orekan, aumentando la partida para desarrollar los retos identificados en las comarcas para ello. Y el único argumento, que la partida es suficiente. De verdad, ¿creen que las partidas son suficientes para hacer frente a la situación socioeconómica que vivimos en Bizkaia?

Y que no, junto con otras instituciones, a la creación de un fondo especial para dar subvenciones directas a los sectores de comercio y hostelería local para hacer frente a la grave situación que padecen. Creen ustedes que ya existen estas subvenciones. No creo que los comerciantes, los bares, los empresarios del sector turístico, y los trabajadores piensen igual.

Y siguen soñando con los Actos Internacionales. O, al menos, así lo han explicado en argumentos contrarios a nuestras enmiendas: priorización a la promoción internacional como clave para salvar la crisis en el sector. No parece que hayan aprendido mucho. Para salvar el turismo local tenemos que hacerlo desde aquí, no desde lo internacional.

También hemos tenido presente la Financiación Municipal en este debate presupuestario, no tocando Udalkutxa, porque no es posible, sino, por un lado, manteniendo, o aumentando las subvenciones de los diferentes departamentos, y haciendo dos propuestas concretas:

Una, en lugar de distribuir el Fondo Extraordinario para Servicios Sociales, dando más dinero a los ayuntamientos, porque tienen más necesidad de desarrollar servicios no desarrollados.

La segunda, manteniendo la partida para ayuntamientos con una grave situación económica.

Y el tercero. Proponiendo una liquidación más adecuada de Gizartekutxa. Y realmente elocuente ha sido su no. No hemos pedido que se incremente la cuantía de Gizartekutxa, ni que se modifiquen los criterios de reparto. Se solicita que la liquidación no se realice sobre la base del Gasto Real del año 2000. Han pasado 20 años, han cambiado muchas cosas en los servicios sociales. En esa época, en el año 2000, no existía la Ley Vasca de Servicios Sociales, de 2008, no existía la Ley de Dependencia del Estado, de 2006. Y hemos pedido que EUDEL elabore un estudio para determinar el gasto real de 2019, y que lo tenga en cuenta para hacer la liquidación. Era un objetivo claro: que el dinero que reciben los ayuntamientos por los servicios sociales y que realmente gastan los ayuntamientos sea lo más cercano posible. Pero ustedes no están dispuestos ni a hacer un estudio de este tipo. Ustedes no quieren hacer cambios, pero la Covid-19 lo ha movido todo, y ustedes también tendrán que moverse.

EH Bilduk Bizkaian bizi diranen beharrei erantzungo deusien proposamenak mahai gainean jartzen jarraituko dau. Gure erantzukizuna dalako, eta oso txarto pasetan dagozan personek eta sektoreek halan eskatzen dabelako (merkatariak, tabernariak, zaintza-arloko langileak, etab.).

Dentro de una semana tenemos otra huelga, la de los trabajadores de los servicios sociales, la segunda. Convocados por todos los sindicatos. Y su reivindicación es muy clara: un sistema y una gestión de los servicios sociales "pública, universal, gratuita y de calidad".

Esta es una de las prioridades destacadas por la Covid-19, situar el sistema de cuidado en el centro. Esa no es la prioridad de estos presupuestos, pero tendrá que serlo. Y EH Bildu seguirá trabajando por ello, el 4 de marzo y todos los demás días.

Hoy finaliza el proceso de aprobación de los presupuestos; no podemos llamarlo proceso de debate, porque no ha habido debate. Pero los problemas aflorados por la Covid-19 están ahí, sin resolver. Estos presupuestos no dan respuesta a las necesidades de los vizcaínos golpeados por la Covid-19, ni a las inversiones que necesitan los cuidados y a las prioridades que deben tener, pero aquí no se acaba nada, y EH Bildu va a mantener su trabajo a favor de los vizcaínos. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Otermin.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Señora Presidenta, señorías, buenos días a todos.

Joan den otsailaren 3ko Osoko Bilkuran hitzaldia hasi neban esanez egoera arruntean Batzar Nagusietan eztabaidatzen eta onartzen dogun Foru Araurik garrantzitsuena aurrekontua bada, hori zailtasun handiko egoera baten egiteak, Covid-19aren pandemiak ekarri deuskun honetan, hain zuzen be 2008ko krisi ekonomikoaren ondorioak oraindino indarrean dagozala, garrantzi erabagigarria hartzen dauela. Eta horregaitik, uste neban gai izango ginala adostasun zabalera heltzeko, hain ezohizko testuinguruan egonda, hain egoera larrian. Izan be, bai 2020ko ekitaldia eta 2021ekoa urte terribleak dira, pandemia, tensinoa gure zaintza- eta osasun-sisteman, konfinamentuak, enpresak ixtea, milaka lanpostu galtzea, jarduera ekonomikoa gelditzea, ziurgabetasun soziala, artegatasuna.

Halanda be, eta horregaz guztiagaz batera, penagarria da klase politikoa zatituta ikustea, aurrez aurre dagoala, errudunak bilatzeko ardua gehiagotik konponbideak bilatzeko baino, halako hauteskunde-trasunto iraunkor baten. Askotan galdetzen deusat neure buruari ia gure gizartean benetan txarto dagoana ete dan sarritan ez galdetzea zer dagoan ondo; ondo baino hobeto onartzea zer gatx sozial eta bizikidetzakoak ditugun, giza komunitate guztien moduan euki daukaguz eta, baina inoiz ez gatoz bat gure gizarteak izan beharko leuken idealagaz. Hobetu daitekeenari garrantzi handiagoa emoten deusagu, ondo funtzionatzen dauenari baino, eta gure berbakaz balioa eta horrek dakarren guztia kendu egiten deusagu.

Danok dakigu 2020ko ekitaldian zehar hainbat aldaketa izan dituala urtea hasteko euki genduan aurrekontuak. Gure Foru Gobernuak, diputadu guztiek eta Aldundiko langile guztiek ustebako eta ezohiko egoera bati aurre egin behar izan deusie, zerbitzu publikoei lehenasuna emonaz eta personak blindatuz, pandemiak bizitzatan eta osasunean eragingo eban kaltearen neurria zehatz-mehatz jakin barik. Ez da harritzekoa bizipen horrek eragina izatea, eta handia gainera, ekitaldi honetarako Aurrekontuari buruzko Foru Arau barri hau egin eta proposatzerakoan, gaur aurrera aterako doguna.

Horregaitik, esan neutsuen, uste osoaren, segurtasunaren eta balioaren konfiantzaren ondorioz, eta publikoak eta ekintza politikokoak ezbeharroi aurre egiteko daukien gaitasunaren ondorioz, Foru Gobernuak aurrekontu-proiektu bat ekarri ebala ganbera honetara, eta bertan jasoten zala, modu errealista eta kontrastatuan, preminazkoari, berehalakoari eta pandemiak eragindako triskantzei erantzun ausartak emoteko garatu beharreko politikak. Aurrekontu-proposamen honek honakoak indartzen eta hobetzen ditu: zerbitzu publikoak, gure gizarte-zerbitzuak, garraio- eta mugikortasun-zerbitzuak, herritarrei arreta eta babesa emoteko zerbitzuak, gastu-asmoko baliabide eta politika garrantzitsuak jasoten dabezanak, ekonomia eta enplegua suspertzeko inbersino publikoa egiten dabenak, eta epe ertain eta luzera egin geinkezan eta egin behar ditugun etorkizuneko aldaketei ekiteko baliabide erabagigarriak ezartzen dabezanak.

Eta hori guztia Europako helburuakaz bat datozen apustu-proiektuakaz, gure ekonomiaren digitalizazioari, zaintza-politikei lotutako barrikuntzari eta klima-aldaketari jagokenez, gugandik gertu daukagun erronka handi horri jagokonez.

Baina zuek, Elkarrekin Bizkaia eta Euskal Herria Bilduko jaun-andreak, zuen osoko zuzenketakaz, hilaren 3an ezetz esan zeuskuen, itzuli egin behar zirala berregiteko. Foru Arau honek, urteko garrantzitsuenak, adierazten dauen guztiari ezetz esan zeuntsien: 84,6 milioi euro jasangarritasunerako eta ingurumenerako, 607,3 milioi euro gizarte-ekintzarako,

62,9 milioi euro euskera, kultura eta kirolerako, 134 milioi euro ogasun eta finantzatarako, 172,9 milioi euro garraio eta mugikortasun jasagarrirako, 134,7 milioi euro administrazio publikorako eta hartu-emon instituzionaletarako, 71,4 milioi euro sustapen ekonomikorako, 74,1 milioi euro enplegu, inklusio eta lurralde-garapenerako eta 253,6 milioi euro azpiegituratarako.

Ezetz esan zeuntsien 916,7 milioi eurori udal finantziatorako, 9,4 milioi eurori Batzar Nagusietarako, eta 5.242 milioi eurori konpromiso instituzionaletarako, Eusko Jaurlaritzarako eta Kuporako; horretarako, gainera, 206,7 milioi euroko zorra onartu behar da. Aurrekontu horretan, zuzeneko kudeaketari edo sailen eskura dagoan kudeaketari jagokonez, euro bitik bat gizarte-zerbitzu eta -politiketara bideratzen da, gizarte-prestazioak blindatzera, arlo publikoa gehien behar dabenak zaintzera, langabezian kroniko bihurtzeko arriskuan dagozan personentzako enplegua sustatzera, bazterketa-arrisku larrian bizi diranak gizarteratzera. Hau da, ez zinduezan konbentzidu, zuentzat hobeto zan urteera-laukura itzultzea beste proiektu bat egiteko, nahiz eta horregaz hile batzuk gehiago behar, 2020ko aurrekontuak luzatuta, eta, esan dodan moduan, pandemiari aurre egiteko alderdi askotan oso aldatuta egozanak.

Elkarrekin Bizkaiak esan euskun, euren ustez, horreek ez zirala bizkaitarren lehentasunak, eta, aurka ez bozkatzeko, EAJk eta Alderdi Sozialistak 4 gauza onartu behar genduzala: proposatutakoa baino zor handiagoa hartzea, Kontzertu Ekonomikoaren Batzordeak ezarritakoa bazan be; 2021ean zerga-erreforma integrala sustatzea, errenta handien gaineko zerga-presinoa handituz, aurrezki-errentei eta laneko errentei tratu bera emonas, eta gehien kutsatzen dauenari gainkargaz ezartzea, etab.; udalek eza dagiezala itzuli Udalkutxak oker emondakoa, arrisku partekatuen printzipioa urratuz; eta foru-titulartasuneko egoitzetan gestino publikoa berreskuratzea, orain enpresa pribaduen kudeatzen dabezanak.

Eta aurkako botoa emon genduan. Nahikotzat jotzen ez diran diru-sarrerak dirala-ta, 2021erako aurreikusitako zorrari 144,6 milioi euro gehitzearen pentsuan ixten dozue dana, presazko zerga-erreforma baten pentsuan, kontuan hartu barik ez Estaduaren eskumenak, ez Euskadin beharrezkoa dan zerga-harmonizazioa, alde batera itxita Eusko Legebiltzarrak arlo horretan daukazan eskumenak, EAeko Udal Legea alde batera itxita eta alde batera itxita zuek, Unidas Podemos, eta Alderdi Sozialistak adostu dogula erreforma fiskala 2022an egingo dala.

Eta, gainera eskatzen deuskuzue, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Legeari eta Administrazio Publikoaren Kontratuen Legeari jaramonik egin barik, foru administrazioarako datozen 15 urteetan egoitza pribatuen kudeaketa berreskuratu daigun, eta bertako langileak funtzino publikoan sartu daiguzan, funtzino publikoan sartzeko prozesua zelakoa dan kontuan hartu barik.

Eta esan neutsuen, arazoa da zuek hemen, bai Euskadin bai Bizkaian, Espainiako Gobernuan planteatzen dozuaren kontrakoa planteatzen dozuela. Eta hori dinot, Madrilen, sozialistakaz batera, egoeraren arabera aldaketa batzuk egitea onartu dozuelako, hain zuzen be, Covid-19tik eratorritako krisi ekonomikoko egoereagaz ez dala egiturazko zerga-erreformak egiteko une egokia defendatu dozuelako. Orduan, galdetu neutsuen: zergaitik egon behar dogu Espainian susperraldi ekonomiko eta sozialaren zain, baina ez Euskadin, eta horregaitik beragaitik Bizkaian?

Beraz, argi egoan ez zenduela akordiorik lortu nahi, ze zuentzat garrantzitsuena da trazu lodiko eztabaida bat sortzea prentsako titularretarako, hedabideetan berezitu ahal izateko. Eta, horretarako, osoko zuzenketaren proposamena garaituta, zuzenketa partzialak sartu behar ziran, 315. Zuzenketa horiek beteteko baliabide gehiago beahr ziran, zorra handituta, gure fiskalitatea erreformautu, Lantik eta Zugaztel moduko enpresa publikoak baliabide barik itxita, Interbiak bezalako foru-enpresak baliabide barik itxita, eta BECen eta Supersur-en ordainketa-konpromisoei aurre egiten jarraitu ahal izateko finantza-erakundeakaz hartutako finantza-konpromisoak bertan behera itxita.

Beraz, lehenengo alderdia, eta gero gerokoak. Bestalde, European alkarregaz borrokatu ditugun akordioak be zalantzan jarri dituzue, Ministroen Kontseiluan zuen kideek sinatu ddabezanak zorraren eta defizitaren mugak igoteko eta erreferentziatzko tasak adosteko. Horregaitik, hemen dana zalantzan jartzen dozuenean, azkenean ziurgabetasun negargarria sortzen dozue gure egonkortasun sozial eta ekonomikoa. Eta, bide batez, gogoeta bi. Aurkeztu deuskuzuezan enplegu-zuzenketetatik 2,2 milioi euroko murrizketa dator enplegu-politika aktiboetan, eta hori funtsezko gaia da; eta autoenplegurako laguntzak kentzea proposatzen dozue, horrek esan gura dau urtean abian jartzen diran 1.000 proiektuak deuseztatzea, interesgarria. Beraz, eta azken baten, ez dot uste hori enpleguaren kalitatea eta duintasuna ez enpleguaren kantitatea hobetzeko modu koherentea danik.

Barrero esan behar dot bardintasunerako aurrekontua dala, % 1,2 inbertitzen dauela bardintasuneko ekintza espezifikoa, genero-eraginaren aurretzako ebaluazioan agirian geratu dan moduan, eta nabarmen handitzen dauela Bardintasun Zuzendaritzaren aurrekontua.

Euskal Herria Bilduri jagokonez, aitortu behar dot bere proposamenen planteamentua serioa eta arrazoizkoa dala, bai eta akordioak lortzeko berariazko borondatea be, baina ez dogu tranparik egin behar. Sakonean akordio ekonomiko sakonak eragozten dituen atze ideologiko bat dago. Horregaitik, zuen proposamenak, azken baten, gizarte-zerbitzuetan, iraunkortasunean eta ingurumenean zentratu zenduzan, eta horretan akordioen batera heltzeko borondatea adierazi geuntsuen arren, holangoak onartu ezkeru zuek gure aurrekontuak onartzeko, ezetz esan zeuskuen. Eta premisa horretatik aztertu ditugu zuen 162 zuzenketa partzialak, jakinda edozein keinu eginda be, ez genduala inondik be zuen babesia izango, ezta abstentzinoa be.

Beraz, aurrekontu alternatiboaren proiektu bat eskaini ez deuskuen arren, diru-sarrera eta gastuakaz, Elkarrekin Bizkaiak eta Euskal Herria Bilduk euren proposamen klasikoak berreskuratu dabez, gaurko eztabaida honetan beren parte hartzea prestatzeko, jakinda ganberaren % 63k babestu egingo dogula 2021eko ekitaldirako Aurrekontuen Foru Arau hau.

Talde Berezia-Alderdi Popularra taldea eta haren 133 zuzenketak dirala-ta, eskertzekoa da alkar ulertzeko erakutsi daben jarrera, nahiz eta, beharbada euren politika beste foro batzuetan zehazten dalako, ezin izan dan bat etorri. Jakin badakigu, Foru Arau hau oso garrantzitsua izanda be, beste gai eta arlo batzuetako arau-akordioak be ez dirala garrantzi gitxiagokoak, datozen hiletan ikusiko dogun moduan.

Euskal Sozialistok ez dogu zuen zuzenketen alde egin, ziur gagozalako erakundeak dirala ekonomia arautu behar daben eragileak, aberastasunaren birbanatzaile gisa jardun behar dabenak, eta, hori posible izan daiten, erakunde guztiek argi eta garbi definitu behar dabezala euren proiektuak eta ildo estrategikoak, herritarrei eragiten deusien arazoei aurre egiteko. Aurrekontua beharrezko tresna da, eta inoiz baino gehiago krisi-garai honetan, herritarrek urtero ordaintzen dabezalako zergak, eta merezi dabe kolektibideari egiten deusien ekarpen ekonomiko, euren alkartasuna, gastu publikoa une sozial eta ekonomiko bakotzak eskatzen dituan beharretara ezin hobeto egokitzeko erabiltea. Hartzen dabezana eta hartzeko eskubidea daukien zerbitzu publikoak diruz hornitzeko balio behar dabe. Eta aurrekontuok desbardinaren arteko akordioaren emaitza diralako, errealista eta gure gobernu-itunak hartutako konpromisoakaz koherentea, Ahaldun Nagusiak behin eta barrero adierazia, eta sozialistentzat oinarrizko erreferentzia utziezinak diran proiektuak eta partidak batzen ditualako.

Alderdi Sozialista Gobernu honetako kidea da eta Aurrekontu honeen egileetako bat. Aurrekontuok dira Gobernu hau osatzen dogun bi alderdi politikook izan geinken tresna ekonomikorik garrantzitsuena gure gobernu-itunean jarduteko funtsezko ardatz gisa adostu genduzan lehentasunei aurre egiteko: enplegua sortzea, ekonomia suspertzea,

zerbitzu publikoei kalidade- eta unibersaltasun-parametroetan eustea, eta krisiaren enbidoak gehien pairatzen dabenakaz ezinbesteko alkartasuna.

Lehentasunok ez dira Foru Gobernu honenak bakarrik, ezpada bat datoz bizkaitarren gehiengo sozial bategaz, erakundeoi erantzun argi eta errealak eskatzen deuskuezanakaz, ziurgabetasunez eta mingostasunez betetako testuinguru sozio-ekonomikoan. Halanda be, eten barik entzuten dogu Aurrekontuok, aurrekoen moduan, kontinuitate dirala, deskalifikatzeko ahaleginean; baina, berez, pandemiaren aurreko ibilbide-orrian geunkan orientazioari balioa emotea, eta, pandemia hori gorabehera eta gure Foru Aldundiak bere gain hartuko dauen finantza-ahaleginagaz, bizkaitarrentzat funtsezkoak diran gizarte-politikei eta zerbitzu publikoei eusteko bidea emoten dabe.

Eta horregaitik esan neutsuen penagarria zala Elkarrekin Bizkaiak eta Euskal Herria Bilduk jokaturako papela, eta beti aprobetxatzen dozuela sozialistei erakusteko zer eta zelakoa izan behar dauen politika aurrerakoiak; eta guztion onerako konpromisoak hartzeko aukera daukazuenean, iges antzean egiten dozuela, eta horrek agirian ixten dau aniztasun politikoaren kudeaketarako akordioak kultura falta. Sentitzen dot, bai, aukera euki dozuelako itunak eta akordioak egiteko, aurrekontuok bermatzen dabezan proiektu eta zerbitzu publikoak blindatzeko. Baina arrazoi partikularrek eragotzi egin deusue, eta, horregaitik, Euskal Sozialistok baietz esaten deusagu pandemiaren ondorioak gehien sufritzen dagozan personei zuzendutako proiektuari. Hori guztia da zuek baztertzen dozuena gure Aldundiak eskaintzen deuskuzan Aurrekontu honeek itzultzeko eskatzean.

Nire taldeak baieztuko botoa emongo dau, bai zerbitzu publikoak bermatzeko nahikoa baliabide egoteari; bai eskubide sozialak hedatzeari, eta jarduera ekonomiko enplegu sortzailea, berritzailea eta kalidadezkoa sustatzeari; bai pandemia honen ondorio latzak arintzeko gure esku dagoan guztia egiteari. Beti emongo deutsegu baieztuko ez barden arteko akordioei eta herritarrek agindutako egonkortasun politiko instituzionalari. Eta, horregaitik, sozialistok ezeztuko emon deutsegu zuen zuzenketa partzialei, gaur zuen zuzenketa bidez aurkezten jakuzan proposamen maximalistei. Proposamenok otsailaren 3ko eztabaidan adierazitako jarreraren zehaztapena dira, eta bildur zarie beste batzuk adostasuna lortuz zikinduko ete zarien, zuen alderdien beharrei begiratzen deutsezuelako, bizkaitarren preminei begiratu beharrean, hau da, bihar-etziko titularrei begiratzen deutsezuelako legegiltzaldi honen ostean itxiko dogun etorkizunari begiratu beharrean.

Esandako guztiagaz, badakigu aurrekontu bakar batek be ezin dauela gizarte honek dituan arazo guztiak konpondu, eta, uste dot zuek guztiok be ondo dakizuela aurkeztu dituzuen zuzenketa partzialek be ez leukiezala konponduko arazook.

Politika eta zerbitzu publikoak bermatzen dituan aurrekontu-proiektu bat daukagu. Hori izango da gaurko barria, Bizkaiak 2021erako aurrekontua daukala, Euskal Herria Bildu eta Elkarrekin Bizkaia gorabehera. Etorkizuna ez da eregiten besoak jaitsita edo Foru Gobernuaren lana zuzentzeko ardura daukienen ekimen eta proiektuei eragozpenak jarrita. Gure esku dago lagundutea edo ez Bizkaia izan daiten inork jaramonik egin barik inork geratu ez daiten, eta inork atzean geratuko ez dan lurralde bihurtzen. Eta horregaitik, aurrekontu-proiektu hau itzultzeko eskatzea errakuntza izango zan, ze horregaz ez zan besterik lortuko denporea luzatzea, eta danak ziurgabetasunean murgiltzea baino, eta gu ez gagoz lan horren alde. Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Otermin Eraso. Y tiene la palabra el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Bagan Urriaga.

El Sr. **BAGAN URTIAGA** jaunak: Señora Presidenta, Diputado General, buenos días a todos. En el pleno de hoy cumpliremos con el último trámite de aprobación del proyecto de Norma Foral de Presupuestos para 2021, debate sobre la enmienda y después votación de este proyecto. Este proyecto viene de diferentes vertientes, pero presenta las prioridades de Bizkaia para este año: hacer frente a la crisis, y posicionar a Bizkaia ante los retos sociales, esta es nuestra prioridad. Y desde nuestro grupo votaremos afirmativamente a este proyecto de Presupuesto.

Aurrekontu proiektu horrek 1.358,8 milioi euro jarri ditu sailen esku, aurreko ekitaldian baino 75,2 milioi gehiago, hau da, % 5,9ko igoera, diru-sarrerak txikiagoak izan diran arren. Horretarako, zor handiagoa onartu behar izan dogu, 294,3 milioi eurokoa, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan hartutako akordio eta erreferentzietan oinarrituta. Egoera horren aurrean, zorpetze handiagoa, jakina, baita erantzukizuna be bai. Egonkortasun Legeak indarrean jarraitzen dau, eta azpimarratu behar da Gizarte Ekintza Sailak aurrekontuaren % 43 kudeatuko dauela. Aurrekontu-proiektu horrek bideragarritasun ekonomikoa emoten deusie hainbat ekintza zehatzi, eta euroi esker, krisiaren ondorioei aurre egin ahal izango jake, eta Bizkaiak aurrera egin daian gure ustez beharrezkoak diran trantsizinoei aurre egin ahal izango jake.

Trantsizio soziosanitarioa arreta-eredu baterantz zaintza modernoagoak eta eraginkorragoak behar dabezan personentzat, Etxetik sarea, Nagusi Intelligence Center edo zaintzaileentzako prestakuntza-plana bezalako proiektuakaz.

Mugikortasun jasangarrirako trantsizinoa, jarduera garrantzitsuakaz, esate baterako Zornotza-Durango lotuko dituan bizikleta-pista, Bakio-Bilbo edo Bakio-Bermeo, edo Bilbo-Txorierra bide berdeak.

Trantsizino digitala, banda zabala lurralde historiko osora hedatuko dauena, digitalizazinoa tokiko merkataritzara eroango dauena. Bizkaiko 42. Prestakuntza-lanak, kasurako Eskola 42 eta Batuz programa. Programa hori, alde batetik, iruzurraren aurkako tresna da, eta, bestetik, zergadunei laguntza emoten deusie.

Eta trantsizino energetikoa, energia barriztagarri eta ez-kutsatzaileetarantza; hor dagoz Energy Intelligence Centerren eta Automotive Centerren proiektuak.

Aurrekontuen proiektu honi 600 zuzenketa partzial inguru aurkeztu jakoz, gure taldekook baztertu ditugunak hainbat errazoi tarteko dala. Kasu batzuetan, justifikazino-oinarririk ez daukielako. Beste batzuetan, Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuak normaltasunez garatzea eta emotea eragozten dabelako. Eta, beste kasu batzuetan, urte anitzeko konpromisoen aurka doazelako, edo gure taldearentzat estrategikoak diran eta gizarteak bermatu dituan zenbait proiekturen kalterako diralako. Eta hori dala-ta, gogoeta bat egin gura dot, Lantiek eta Zugaztelek beteten dabezan funtzinoak beharrezkotzat daukaguz Aldundiak behar bezala behar egin daian. Azken ekitaldian frogatu danez, erakunde publikook legezketasun- eta ekonomia-kontrol egokiak daukiez, eta gardentasun-betebehar guztiak beteten dabez; era berean, ezinbestekotzat jotzen dogu foru-plan informatikora bideratutako gastu-programei eustea, horreek barik ezinezkoa litzatekelako une honetan Aldundiaren eskumenekoak diran zerbitzuak behar bezala emotea.

Enplegua, gizareratzea eta bardintasuna. Aldundiak enpleguaren aldeko apustu sendoa egin dau, gehien behar dauena babestearen aldekoa, bardintasunean eta gizarte-kohesinoan haztearen aldekoa. Horretarako, Sailaren aurrekontua 5,3 milioi euro handitu da. 2.294.000 enplegu eta ekintzailatza programetan, % 11,4 gehiago. 900.000 euro gehiago gizareratze-programetan, % 4,4 gehiago. Eta % 1,2 bardintasunerako programa espezifikotara bideratzen da. Eta ez gatoz bat zenbait programa, autoenpleguarena kasurako kentzeagaz, 1.000 proiektu eta 1.000 lanpostu proiektuoi lotuta dagoz.

Sustapen ekonomikoa dala-ta, 65 milioi euroko aurrekontua dago; horreetatik 46.000.000 balio erantsiko laguntza eta zerbitzuetarako dira Bizkaiko enpresa eta ekintzaileentzat, eta horreetatik 26 milioi itzuli beharrik gabeko diru-laguntzetarako dira. Merkataritzarako eta turismorako laguntzak bikoiztu egin dira, eta 5.000 ETEk jasoko dabez laguntza horreek. Inplikazio garrantzitsua dala uste dot. Eta zuzenketa partzial batzuk proposatu dira, gure ustez funtsezkoak diran programa batzuen kalterako diranak: Ekintzaileentzako Nazinoarteko Zentroa, etorkizuneko enpresa handien ernamuina izatea espero doguna, Bizkaian kalidadeko enplegua eta ongizatea emoteko; Escuela 42 Bizkaia, Telefónica Fundazioagaz lankidetzan, profil digitaletan trebatzeko, profilotan eskaria dago eta; Meatzaldea-Ezkerraldeko Parke Teknologikoa, ingururako bultzada handia izango dalan, balio erantsi handiko industriagaz; eta Energy Intelligence Center, trantsizino ekologikora bideratua, ez Oil & Gasera, eta egitasmo interesgarriakaz, esate baterako, hidrogeno-korridorea, eta elektrizidade-banaketarako sare inteligentea. Eta eskualdearen garapenari jagokonez, Oreka Sakonduz programak Bizkaiko eskualde guztietan jasotzen ditu jarduerak. Eta, programa honetan dagozan gastu-arazoez gainera, Sailean garatzen diran gainerako jarduera guztiek be eragina daukie eskualdearen garapenean.

Azpiegiturak eta lurralde-garapena: 238 milioi euro aurrekontuan, horreetatik 209 milioi inbersino publikorako dira. Sail honen aurrekontu-partidak nabarmen handitu dira. Aurrekontu hedakorra, inbersino pribatua ia guztiz galdu izana orekatzen ahalegintzeko, pandemiaren ondorioak kontuan hartuta. Aldundiak inbersino-rola hartzen dau, egia da, baina horrek 1.500 lanpostu mantentzeko edo sortzeko aukera emongo dau. Azken ekitaldietan moduan, zuzenketa kritikoak aurkeztu dira AP-68 autobidea eta Supersur errepidea lotzeko obrei buruz, honezkerok obrak gauzatzeko fase erabakigarrian dagoana, bai eta itsasadarraren azpiko tunelari buruz be. Barriro esango dogu, apustu estrategikoko baten parte diran inbersinoak dira, Bizkaiko mugikortasun barria argituko dauen sahiesbide bategaz. Saihesbide horreetatik, eta bera hobetuko dauen metropoli-ingurunetik igarotzen diran merkantzien joan-etorririk gogorrena garraio publikoa izateko. Eta aurrekontu honetan bidegorrien sareari egiten jakon bultzada indartsua: Durango, Zornotza, Bakio, Bermeo, Bilbo, Txorierri. Interbiak-i funtsak kentzeko zuzenketa dala-ta, Interbiak-ek emoten jakozan funtzino batzuk beteten ditu, irisgarritasun-plana eta errepideen mantentze- eta konserbazino-arloko foru-eskumenak beteteko; urte anitzeko kontratuak dagoz eta amortizau beharreko zorra dago.

Gizarte Ekintza, 585 milioi euro, aurrekontuaren % 43, iazko ekitaldian baino 20 milioi gehiago, 17,7 milioi euro Coviden aurkako neurrietarako. Nire ustez zenbakiak adierazgarriak dira. Eta 3 ohar: Aurrekontu honetan funts bat dago egoitza-zentroak bizikidetzan-unidadeen ereductara egokitzeko; bigarren, ikuskaritza-lanak ikuskatzaileek eurek egiten dabez, eta zerbitzuan dagozan langileek, eta oin dala gitxi egindako inkesta baten, inkestautako persona askok ontzar balorau izan dabe lan hori; eta Gallartako egoitza-zentroa dala-ta, plaza batzuk adinekoentzat dira, baina ez dira beteko eskaerarik ez dagoalako. Ezgaitasunen bat daukienen personentzat badago eskaria Busturialdean eta Meatzaodea, libre dagozanak erabilten dira eta. Eredua unean uneko preminetara egokitu behar da.

Jasangarritasuna eta natura-ingurunea. Foru inplikazio eskasaren aurrean klima aldaketaren aurkako borroka horretan eragingo leukien zuzenketak dirala-ta, esan behar da ekitaldi asko daroaguzala jarduera asko egiten, eta orain be egiten dirala Sailaren barruan eta ekintza positiboakaz, eta zeharka be bai, beste ekimen batzuetatik garatzen diranak kontuan hartuta hala nola mugikortasun jasangarriko trantsizino-proiektuetan edo trantsizino energetikoan sartzen diranak. Eta azpimarratu nahiko neukez lehenengo sektoreari, bere jarduera ekonomikoari eta lotutako lanpostuei laguntzeko programak, aurrekontuaren % 38, 24 milioi euro.

Y euskera, cultura y deporte. Se mantendrán las ayudas, adaptando los teatros municipales a las programaciones, en la programación Eskena Garatu, para impulsar las

artes escénicas, las artes audiovisuales, y la Fundación Bizkaia Bizkaialde desempeña un papel fundamental en la participación en competiciones de máximo nivel deportivo, apoyando a los clubes tanto a nivel estatal como internacional. Y por eso, no vamos a reducir las cantidades que se destinan a ello. Y con esto termino mi primer turno. Gracias a todos.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Bagan Urriaga, y pasamos al turno de respuestas. Para ello, tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Fernández Angulo.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Esku hartzeko txanda hau zabaltzean, aurrekontuak onartzeko prozesu honen amaiera bideratzen gabiltz, abenduaren hasieran hasi zena. Eta egia da ez dala ezusterako tarterik egon, ez diskurtsoetan, ez hitzaldietan adierazitako jarreretan. Nire ustez, gaurkoagaz, denpora gutxi barru egingo dan bozketaren emaitzagaz, ez daukagula puntu eta aparte bat, ezarriko doguna puntu eta jarraipena dala; izan be, egongo da denporea aurrekontu-ekitaldi honetan aztertzeko aurrekontu hau eta kontu honeek benetan balio daben lurralde honek dituan erronkei erantzuteko, edo beste behin be aukera galdu bat izan leitekezan.

Nik hasieratik esan neban, Aurrekontu honeek kontinuitateak zizala iruditzen jatan, nik uste dot bere garaian errutinazkoak zizala esan nebala, proiektu barri gitxi dakarrela iruditzen jat, oraingo errealidadea hain aldakorra izateko, eta, nire ustez, barrikuntza handiagoa eskatzen dauena, eta, zalantza barik, errealidade barri horretara egokitzeko gaitasun handiagoa, bizi dogun egoeran eta inguruan, ez bakarrik hemen Bizkaian, Espainiako gainerako lekuetan eta Europako gainerakoan be, inguru guztiz aldakorra. Orduan, ondo pentsau beharko dogu ze aukera daukagun arazo nagusiei eta une honetan ditugun ahulezia nagusiei aurre egiteko benetan eraginkorra izan daiten.

Egia da batzuetan bizitzak gogor jotzen dauela, eta horixe gertatu da osasun-krisi honetan. Bizkaia koman dago, batzuek egoera hori konpontzeko suspertze-prozesu bat behar dala ulertu leikie, eta nire ustez, batzuek kontrakoa ulertu leikie, eta paracetamolaren besterik ez dauela behar. Aurrekontuari ikusten deusadan arazoa da, funtsean, paracetamolaren antza handiagoa daukala bizkortze-prozesu batena baino. Beraz, guk uste dogu balitekela ez erantzutea gure lurraldeak dituan erronkei.

Beno, zer ahulezia ditugu Bizkaian? Errealidade horregaz konpromiso gitxi daukala emoten dau eta. Oin dala egun batzuk, otsailaren 16an, merkataritza-ganberen eta Ekonomialarien Elkargoaren txosten batek, Autonomia Erkidegoen 45. urteko bilakaera ekonomiko, sozial eta enpresariala izeneko txosten batek, adierazi eban 1986an Euskadiko industriaren ehunekoak BPGren gainean % 45,23ra heldu zala lurralde-kontabilitatearen azterketari buruz. 2019an, % 21,46. Norbaitek esango dau Euskadikoa dala, ez Bizkaikoa, tira, danok dakigu Euskadiko pisu ekonomikoaren % 50 baino gehiago Bizkaian dagoala, eta, beraz, neurri handi baten, datuok gure lurraldean daukagun errealidadea azaltzen dabe. Eta gure taldeak behin eta barriz esan dau, ziur asko, Akilesten taloi nagusiak, fiskalitateagaz batera, geroago labur-labur hitz egingo dot horren ganean, esan dodan moduan adierazten dauela Akilesten taloi hori, zailtasun handieneko uneei aurre egiteko.

Eta egia da txosten horrek hainbat aldiz aipatu dogun kontu bat jarri ebala agirian, Euskadik, Bizkaia, Espainiako ekonomian daukan pisu erlatiboaren galera, eta hori da, hain zuzen be, gure hazkundera ez dalako nabarmena izan, eta guk izan dogun tokia beste lurralde batzuek be beteten dabelako.

Azken baten, nire ustez, oso garrantzitsua da bereziki azpimarratzea zerga-politikan aldaketak egin behar dirala, baita ekonomia- eta aurrekontu-politikan be, industria-

arloan posizino hori berreskuratu behar dala ikustea, barrikuntza gitxi dakarren edo I+G+Bagaz konpromiso gitxi daukan zerbitzu-sektorearen kaltetan. Gizarte-politikeagaz zerikusia daukien aldaketak eta erreformak egin behar dira, azken baten, aurrekontu honetan faltan bota dogu erreformakaz konpromiso handiagoa hartzea.

Nik zerga-politikaren gaia aitatu dot, eta, beraz, oso labur azalduko dot. Nik ez dot txarto ikusten Mazzucato andreaki entzutea, beharbada Bizkaia asko ezagutzen dau, badauko zeresana, politika fiskal konparatua eginez, baina niri oso garrantzitsua iruditzen jat galdetzea ia 83.000 autonomo baino gehiagori be entzungo jaken, enpresei entzungo jaken, Lurralde honetako enpresariei entzungo jaken, langileei entzungo jaken, gainerako alderdiei entzungo jaken, zer argi dagoana da hau guztiz preminazkoa dogula, urte askoan benetan heldu barik dagoan gaia dala, eta nik uste dot une hori be 2021. urte honetan zehar heldu behar dala, guk lehenago heltzea gurago izango bagenduan be.

Zaintza-sistema, tira, baten batek esan dau inkesta bat egin dala eta gure zaintza-sistemari buruz zeozer esateko daukien guztiak nahiko pozik agertu dirala, ikuskaritza-zerbitzuak dirala-ta. Guk proposamen bat sartu dogu erregistroan, argi eta garbi gitxiegi iruditzen jakuzalako zeregin horretara bideratutako personen kopurua, eta protokoloak be berrikusi behar dirala uste dogu. Eta zalantza daukat bizkaitar guztiei galdetu ezkeru gai horri buruz eretxi zehatza emon ete leikien, eta zalantza daukat informazino osoa eta daukien benetan zelan egiten diran ikuskaritza-prozesuak gure egoitza-zentroetan jakiteko. Eraginkortasunari eta efizientziari buruz zeresan asko dago, eta asko eztabaidatu beharko da hobetzeko, betiere ikuspuntu eraikitzailetik, joan den martia ezkeroztik gertatu danaren errealdadea kontuan hartuta. Datuak hor dagoz, eta uste dot gatxa dala bertan gozo eginda estaltzea.

Enplegua bezalako gai garrantzitsuei buruz, esan da konpromiso handia dagoala aurrekontu honetan enpleguagaz, aurrekontua % 5 handitu dala. Guk dakiguna da langabeziak % 10 egin dauela gora azkenengo urtean. Orduan, uste dogu aurrekontua % 5 igotea ez dala nahikoa, eta horregaitik proposatu genduan 13.500.000 euro gehiago emotea, kontuan hartuta, gure ustez behintzat, % 20 inguruko hazkundera behar genduala, eta ez dot uste gai hori nire taldearentzat bakarrik danik erabakigarria, Bizkaiko herritar guztientzat be halan dala uste dot. Gai honetara aurrekontuko 100 eurotik 5 baino gitxiago jarrita, gatxa egiten jaku bizkaitar askorentzat honezkero drama bat danari aurre egitea, egoera larrian dagoz eta. Nire ustez, horixe da egunero altxatu eta Bizkaia eregiten daben emakume eta gizonen lehentasuna, eta ez jat argi geratu aurrekontu honetan benetan hartu dan konpromisoa danik.

Gehiengoak eta gutxiengoak dirala-ta, % 63 asko dala, gitxi dala, nik uste dot beti dala bitxia batzuetan horri buruz hartzen dan ikuspegia, gehiengoei buruz. Norberaren jarreraren alde datorrenean, hori ohikoa da politikan, beti esaten da jakituria eta erantzukizun paregabea erakusten dabela, eta norberaren proposamenak baztertzen dabezanean, gehiengo hori heldugabea da, ardurabakoa, atzeratua. Hori da ohikoena.

Nik uste dot ezarri geinkela, ezartzen ahalegindu geintezkala erespede objektiboagoa, ezta? Lurralde moduan, herritarren aldetik, Bizkaiarentzat dituan onurei begiratuko deutsegula, eta, holan, balorau ahal izango dogu gauza bat babestu dauen gehiengo oso ona edo oso txarra dan. Eta gaur konpromisoa hartu geinke 2021eko abenduaren 31n galdera garrantzitsu batzuk egiteko. Aurrekontu-ekitaldi honen amaieran langabe gitxiago egongo ete dira Bizkaian? Gure enplegu-politikak eta gure baliabideak ondo, txarto edo erdizka bideratzen diran jakiteko modu egokia litzateke. Eta gehiengo horreek onak, txarrak edo erdizkakoak diran. Ekitaldi honetan enpresa barriak etorriko dira Bizkaira, enpresa horreek enplegu egonkorra eta kalidadekoa sortuko dabe, gure adinekoak hobeto babestuta egongo dira eta gure egoitza-zentroetan arreta handiagoa eukiko dabe, neurri barriak hartuko dira gizarte honen beste lehentasun baten aurka borrokatzeko, klima-aldaketaren aurka, esaterako? Izan be, beharbada erespede objektiboak izan daitezke horreek, eta aurrekontuon ontasuna edo ontasunik eza baloratzen lagundu ahal deuskue.

Eta nik amaitu egingo dot, eta amaituko dot Osoko Bilkuran parte hartu neban zentzu berean. Aurrekontuak, azkenean, proiektu politiko baten adierazpena dira zenbakitan, eta, nire ustez, proiektu politikoak gehiago bideratu behar dira gizartearen beharretara beti, egin, onartu edo inplementatzen dabezanen beharretara baino. Nire ustez, bizkaitarrok politika eta Aurrekontu errealistak eskatzen dabez, doguz, erreformak eta etorkizunerako proposamenak daukiezanak. Zer gertatuko da? Datozen hileetan ikusiko dogu. Guk euki dogun joko-zelaiaren barruan jarduten ahalegindu gara, nire ustez oso garrantzitsua dan zerbait gogoan hartuta, baktxarentzat zer da Bizkaia. Nire taldearentzat, laburtu geinke Bizkaiak min emoten deuskula, eta horregaitik ardura deusku. Eta, zer gertatuko da 2021ean? Ba guk pentsetan doguna gertatuko da, hemen gagozanetako baktxak, gutako baktxaren esku dago. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Fernández Angulo. Tienen la palabra la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martin.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTIN** andreak: Gracias señora Presidenta.

Gogoan daukat San Inazio eguneko hitzaldian Ahalduen Nagusiak esan ebalak krisi honek gure alderdirik onena aterarazoko deuskula, eta hori aurrekontuetan ikusiko zala, besteak beste. Nik benetan galdetzen dot ia hori dan Foru Gobernu honen alderdirik onena, aurrekontuok ete diran krisi honetarako euki geinken txertorik onena.

Zuek gaur danaren ganetik pasauko zarie. Eta esaten dozue batzuek eta besteek zeozelan legitimidadea daukazuela, Otermin jaunak % 60a aitatu dauenean. Hori egiteko legitimauta sentiduten zarie, eta% 60ko datua emon dau Ganberaren aurrean. Nire ustez, bizi dogun krisi-egoeran be, beste kontu bat izan behar da: zuek, Gobernuari eusten deusazuen taldeok, Bizkaiko 10 herritarretik 3 ordezkaten dituzue, 10etik 3. Eta egoera hain larria danez, niretzat garrantzitsua da gitxienez, Ganbera honetan dagozan oposizino taldeak kontuan hartzea, bizkaitarrak dagozan krisi sozial eta ekonomikotik aterateko politikak garatu ahal izateko.

Nik barriro begiratzen dot aurrekontua, eta esango deustazue aurrekontu honek Bizkaiko herritar guztiek gaur egun daukiezan beharrei erantzuten deusien. Ostalaritzaren eta merkataritzaren beharrei erantzuten deusien, parakatu, baina nik ezetz esango neuke. Aurrekontu honek enplegua sortzen laguntzen dau? Haren kalidadea hobetzen edo mantentzen? Ba ez. Esan dozue ezin dirala autoenplegu-proposamen guztiak kendu. Guk autoenplegua beste modu batera ikusten dogu; Foru Aldundiak egiten dauena personak amildegira bota, goraino zorpetu, eta, gero, administrazio publikoek ez dabe koltxonetarik jartzen, personek hile bigarrean beren lokala, merkataritza edo martxan jarri daben enpresa zorrez beterik itxi beharrik izan ez daien. Orduan, gure ustez, oingo krisia dala-ta, beste elementu askoz garrantzitsuagoak dagoz, zeozelan bermatzen dabenak enplegu-kalidadea eta personen egonkortasuna, bizi-mailan, handiagoak izatea, autoenpleguak egin leikena baino.

Krisi klimatikoari aurre egiteko behar diran baliabideak jartzen ditu aurrekontu honek? Mugikortasun-eredua aldatzen dau, edo ekoizpen-eredua klima-estrategiaren arabera, edo 2030 agenda? Ba ez. Eta IKEa ez dala Oil & Gas esatea proiektuaren barririk ez eukitea da, hain zuzen be, abian dagoan hitzarmena eta lehenengo fase honetan garatuko dana Oil & Gas dalako. Aurrekontu horrek ez dau Bizkaia jasangarria, bidezkoa, kohesionatua eta bardintasunezkoa izango dan Lurralde gisa eregitea bideratzen.

Eta nik orduan uste dot zuek aurrekontu horregaz beste helburu bat daukazuela, hain zuzen be Bizkaiko status quo-ari eustea, eta arraunean egitea gauzak lehen

egozan moduan egon daitezak barriro, ze batzuei oso ondo joan jaken, baina Bizkaiko herritar gehienei ez hain ondo. Zuek esaten dozue, ha ze jarrera Elkarrekin Bizkaiarena, ez dabe ezer proposatzen. 310 zuzenketa, nire ustez, ez da ez proposatzea. Nire ustez, ez da marra lodia; nire ustez, arduratsuak izatea da, serioak izatea, eta onartzea Bizkaiak daukan egoera gatxa dala, eta errealidade hori hobetuko daben proposamenak mahai gainean jartzen ahalegintzea. Hori negoziatzeko eskua luzatzea da. Eta negoziazio-prozesu hori, parkatu baina ez da bape serioa izan zuen aldetik. Eta zergaitik esango deusuet. Izan ne, negoziazio-prozesu horretan zintzoak baino zarien bakarrik beste talde batzuen babesa eta botoak behar dozueanean, eta osterantzean, zuek negoziatzen dozue zuen indarra erakusteko eta gainerako taldeak menpean hartzeko. Ze ez zagozie prest zuen jarrera apur bat be mobiduteko zuekaz aurrez aurre izan ditugun negoziazio-prozesuetan. Beraz, ez etorri hona lezinorik emoten, ez negoziatzeko gaitasunari buruz, ez adostasunari buruz, ez jarrera onari buruz. Ze zuei bardin jatzue oposizioaren proposamenak onak diran edo herritarrentzat onuragarriak diran. Argi itxi dozue. Behin zuek osoko zuzenketak planteauta, hemen ez dago ezer baloratzeko.

Parkatu, baina hau ez da jarrera ona eta negoziazio-rako jarrera, hau pataleta deitzen da, nire etxean amak pataleta esaten deutso. Eta pataleta baten aurrean ezin dogu ezelango negoziazio-gaitasunaz berba egin. Eta orduan zuek azaldu beharko deutsezue Bizkaiko biztanleei zergaitik gaur bozkatuko dozuen ezetz barriro oposizioaren proposamen guzti-guztiei. 600 baino gehiago, nik ez dut sinisten Bizkaiko herritarrei hobetzeko aukera emongo deusien 1, 2, 10, 20 ez dagozanik. Ez dot sinisten, hori adostasun-kultura falta da. Eta zer esaten dozue orduan egindako akordioak beteteko gaitasunik ezaz, ze hori be gertatu da aurrekontu honeetan.

Aurrekontu-proiektu honek ez ditu jasoko gure proposamenak, ezta aurrekonturako ad hoc egin ditugunak be, ezta bere garaian egin genduzanak eta zuek onartu zenduezanak be. Ez dozuez aurrekontura ekarri aurrekontuon aurretik lortutako akordio urriak. Non dagoz egoitza-sarearen jarraipenak eta ikuskapenak hobetzeko baliabideak? Ez dagoz. Non dagoz turismo-estrategia barriztetako baliabideak? Non migratzaileei eta errefuxiatuei buruzko akordioa garatuko dabenak? Non dagoz? Nik ez ditut aurrekontu honetan aurkitzen. Eta ez da kontu barria. Akordio horreek oin dala gitxi egindakoak dira, baina ez, beharbada ahaztu egin jatzuez.

Hori da zuen berbearen balioa, Gobernu honen berbeak balio dauena. Gitxi eta bapezen artean, eta begira, Otermin jauna, nik arretaz entzun deusut, eta gaur deigarriena egin jatana, eta aurreko Osoko Bilkuran be atentzinoa emon eustana osoko zuzenketari buruz eztabaidatu gendueanean, da zure jarrera sutsua aurrekontu-proiektu honen defentsan. Euzko Alderdi Jeltzaleak erakusten dauena baino askoz be sutsuagoa, eta niri benetan pentsarazoten deustana da, zure alderdiak Gobernuan daukan menpeko zeregin horretan, une honetan zure eginkizun nagusia "*Lehendakariak, kentzeko agindutako berbea*" dala, bestela, ez dot ulertzen.

Zuen hauteskunde-programari eta zuen gobernu-akordioei erreparatu ezkerro, esango deustazu non dagoan jasota hemen lehenasuna emotea erabiltzaileen eta senideen ikuspegiari, beharrak baloratzeko orduan, edo egoitza-baliabideen asistentzialidadea. Non dago? Non dago kooperaziorako aurrekontuaren 0,7a? Non dago energia barriztagarriek bultzada emotearen aldeko apustu garbia autokonsumoan? Esaidazu non dagozan mugikortasun jasangarriko politika horreek garraio publiko kolektiboaren erabilera sustatzen. Edo aurrekontu horregaz zelan bermatzen dozuen udalerrien finantza-nahikotasuna. Ez dira nire proposamenak, zureak dira.

Zuek dinozue, ze gu gara gobernatzen dakien ezkerro. Begira, pentsetan hasita nago honezkerro uko egin deusazuela programa horri, eta Euzko Alderdi Jeltzalearen programa besarkatu dozuela, eskuineko programa. Eta nik esango neuke, gobernatzen dakien ezkerrean egon beharrean, zuek dakizuen dela zuen programari uko egitea Gobernuan irauteko.

Esan deusuegu badagoala gaitasuna egin ahal izateko, kontua nahi izatea da, eta borondate politiko apur bat izatea garatu ahal izateko.

Zorpetzea dala-ta. Ezetz, ez dala erokeria, ez dala zuhurtziabakokeria. Zelan gura deusazue aurre egin herritarrek daukiezan benetako beharrei? Proposamen hori niretzat, eta gure aldetik, hazkundera berreskuratzeko eta ekonomiaren susperraldiaren oinarriak ezartzeko estrategia moduan planteatzen da. Pandemiari eta herritarren beharrei erantzuteko gai ez izatearen ikuskizun nekagarria kentzeaz gainera.

Guk planteatzen dogun zerga-erreformari ezetz esan dinotsazue, eta ganera adierazi dozue ez dala koherentea, Espainian 2022rako hobeto dala esaten dabilzala, eta, orduan, zuek zer uste dozue Foru Gobernuak 2021erako planteauko dauen zerga-erreformaz? Zer iruditzen jatzue? Txarto ikusten dozue guk proposatzea, baina Foru Gobernuak proposatzen badau, txalotu egiten dogu. Zoragarri.

Aurtengo aurrekontu-proiektua egiteko, ezinbestekoa zan oso argi eukitea zer zan lehentasunezkoa. Guk oso argi euki dogu lehenengotik. Zerbitzu publikoak indartu egin behar ziran, bai udalekoak bai foru-eskumeneoak, eta herritarren eskubideak blindatu, enplegua sortzeagaz batera. Eta zuen lehentasunak ez dira horrek izan, eta zuen konpromisoak ez dira Bizkaiko jentteagaz egon, zuek jakingo dozue nogaz. Nire aldetik, besterik ez. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora De Madariaga Martin, y tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, gracias, señora presidenta. Buenos días de nuevo.

Decía el señor Otermin "hace falta voluntad para el acuerdo por parte de EH Bildu". Yo creo que, si miramos lo que ha pasado en los diferentes ayuntamientos en la propia Bizkaia, veremos que EH Bildu es capaz de llegar a acuerdos con diferentes fuerzas. En la mayoría de los casos, EH Bildu se ha abstenido en los ayuntamientos que tiene, pero a veces hemos votado a favor; en Amorebieta hemos votado a favor, en Ugao hemos votado a favor, en Loiu hemos votado a favor, y viceversa, el PNV se ha abstenido en la mayoría de los casos, pero otras veces a favor. Y tenemos que decir que el PSE en algunos ayuntamientos ni siquiera quiere hablar con nosotros y que ha votado en contra. Entonces, yo creo que aquí todos tenemos que ver qué hacemos en los diferentes ámbitos.

He dicho, y vuelvo a repetir, que ante el presupuesto EH Bildu ha actuado con responsabilidad, hemos actuado con responsabilidad, y las propuestas que hemos hecho, lo dije el otro día, no son nuestros modelos, porque sabemos que aquí tenemos modelos diferentes. Pero para llegar a acuerdos, cada uno tiene que ceder en algo. Y las propuestas que nosotros hemos hecho, tanto las enmiendas parciales como en las propuestas de acuerdo que hicimos, entrábamos en sus modelos, pero porque creíamos que en esta crisis que vivimos en este momento era imprescindible tomar medidas urgentes, y medidas urgentes justo en las residencias. Entonces, yo creo que nosotros hemos actuado con responsabilidad, y desde luego, esperábamos otra actitud por parte del gobierno foral.

Y lo he mencionado antes, no sé si el señor Otermin quiere modificar la normativa, pero en el proceso de aprobación de los presupuestos hay dos fases. La primera es la enmienda a la totalidad y la segunda es la enmienda parcial. Nosotros hemos presentado dos enmiendas a la totalidad, y la enmienda parcial, y lo hemos hecho así, por un lado, porque

veíamos que se tenían que dar modificaciones imprescindibles en los presupuestos, y por eso planteamos dos enmiendas a la totalidad, y una ya saben cuál era.

Aquí hay un problema principal en estos presupuestos, y es la supresión del centro de mayores Gallarta. Nosotros dijimos, no estamos dispuestos a tener una plaza pública de mayores menos, tenemos pocas, porque ustedes entienden esa colaboración público-privada, dejarla en manos de la privada, y cada vez menos pública. Nosotros no estamos dispuestos a que haya una plaza pública menos, y por eso presentamos la devolución de los presupuestos del IFAS, en la enmienda a la totalidad, pero aquí tenemos las enmiendas parciales para aumentar la transferencia al IFAS. Pero a ustedes les da igual. Ustedes ya habían decidido que ei en tres reuniones nosotros no dábamos el sí, ya no había nada que hacer, y eso, a nuestro juicio, lo he dicho antes, tenemos diferentes formas de llegar a acuerdos, porque si no no se entiende, edo dana edo bapez, hori edo aldatu, osterantzean ez da akordiorik egongo borondate falteagaitik, ze akordioen oinarria da alde biek uko egitea zeozeri. Orduan ezin da izan 0-100, beste era batera izan beharko dau.

También ha dicho Propuestas maximalistas. EH Bildutik uste dot ez dogula proposamen maximalistarik egin. Adibidez, ez deutsegu zuzenketarik egin Etxetik eta Nagusi Intelligence Center egitasmoei, eta ez proposamen zoragarriak iruditzen jakuzalako. Hasteko, Etxetik, ez dakit dagoan dirua gastauko dan, ze hemen aurrekontuak gura dan moduan handitzen dira. Etxetik, Etxaniz zentroa ondino ez da lizitau. Gero planteatzen da 6 egongo dirala. Lehenengo Etxaniz lizitau beharko da, martxan jarri beharko da, proiektu pilotua da, baloratu egin beharko da, eta gero gainerakoa jarri beharko da.

Habéis puesto dinero, para decir que hay dinero, luego no se gastará, ya veremos. Nagusi Intelligence Center todavía no sabemos ni para qué es, pero no hemos puesto ninguna enmienda, nosotros sabemos que es su proyecto, nosotros haremos un seguimiento, los otros proyectos son la prioridad para nosotros. Pero no hemos entrado en todos los proyectos que no son importantes para nosotros, porque pensábamos que teníamos que ir a mínimos, que en este momento la prioridad debería ser consolidar de verdad los servicios sociales. Pero lo que hemos visto ha sido que ustedes no han sido capaces de cumplir lo que aprobamos, porque aquí aprobamos en octubre una resolución en torno al cuidado, y eran cuatro puntos, y dos de esos cuatro puntos no se han cumplido.

"Ikuskapenak indartzea eta egoitza-eredu barri baterantz aurrera egitea". Proposamen bi horreek ez daukie bape finantziiazinorik aurrekontu honetan. Eta Bagan jauna, edozer esan daiteke, esan lei berbak haizeak eroaten dituala, baina hau grabatuta geratzen da. Eta ez dago funtsik, eta bestela esango deustazu zein dan partida, ez dago funtsik egoitzak egoera barrira egokitzeko. Ez dago, hori ordaintzen dan tarifaren barruan sartzen dala dinozue, eta niri zoragarria irudituko litxakit, baina orain arte egin ez badozue, zergaitik egingo dozue?

Por eso, nosotros hemos planteado un fondo especial vinculado a objetivos concretos. Porque lo vemos necesario, sabemos lo que hemos vivido en la primera oleada, en la segunda oleada, y esperemos que no haya otra. Entonces, es urgente, y no hay nada en estos presupuestos, y lo mismo con las inspecciones. No hay, siete no son suficientes para inspeccionar todos los centros, no lo son. Y yo creo que ustedes deberían ser conscientes. Habrá otros, sí, pero lo de la subcontratación desde luego no lo aceptamos en absoluto.

Y, por otro lado, si aceptamos que había que reforzar las inspecciones, necesitaríamos más personal. Entonces, yo creo que cuando se plantea que nosotros no hemos planteado bien nuestras enmiendas, yo creo que hay que tener en cuenta que por su parte ni lo han analizado. Y antes he puesto tres ejemplos. Dicen, quitan Interbiak y eso, vale, ahí tenemos el debate, ya lo sabemos, ya saben que para hacer enmiendas parciales hay que quitar de algún lado, pero si hay voluntad de acuerdo, ya se ve por dónde quitarlo. Pero ha habido tres enmiendas que hemos retirado del crédito global, y esas tres han sido, por un lado, para

aumentar las inspecciones, la segunda, aumentar las ayudas ICM en sostenibilidad. Dos que ustedes estaban dispuestos a acordar en las negociaciones. Ha habido enmiendas parciales. No han hecho ningún esfuerzo para aceptarlas de verdad. Y la tercera, un convenio con la UPV para diseñar medidas para hacer frente a la brecha de género en el sistema fiscal en Hacienda.

Estas tres no quitan del sueldo ni del plan informático, pero da igual, porque cuando estamos en las comisiones lo vemos, no hay realmente argumentos.

Siempre se dice, ya se hace, o se hará una partida suficiente, pero vamos a mirar si realmente las propuestas que hacemos merecen la pena o no, y veríamos de dónde quitar el dinero, pero ese ejercicio no se hace en absoluto, y eso es. Lo que creemos es que PNV y PSE no tienen voluntad de llegar realmente a un acuerdo, y no tienen voluntad porque tienen mayoría, y dicen "saldrán". Y sí, saldrán los presupuestos, pero, en nuestra opinión, eso no es lo más importante. Por un lado, a nivel social creemos que sería mucho más importante lograr un consenso más amplio. Y el segundo, EH Bildu tiene muy claro que aquí tiene que haber cambios. Y escuchamos una y otra vez, Acción social 20 millones más, y el 43% de los presupuestos, sí, pero igual tiene que ser el 60%. Y que ha aumentado sí lo sabemos, pero cada vez hay más necesidades y, entonces, cada vez necesitamos más dinero. No vamos a entrar a dónde va ese dinero, ya saben que ahí tenemos diferencias, pero sí más necesidades, y entonces, más dinero.

Igualdad. 1,2 % del presupuesto disponible. Y la Norma Foral de Igualdad dice que el 1% de la gestión propia. Y ustedes no tienen en cuenta lo que dice la Norma Foral de Igualdad, pasan. El presupuesto de gestión propia es de 1.800 millones, necesitamos 18 millones para invertir en acciones directas de igualdad. Y solo hay 16,3 millones. Por lo tanto, no cumplen ese 1%. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare, y tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Mahaiburu andrea, ahaldun jaun-andreok. Sutsua naizela, gauzak bihotzez esaten ditut, beti. Akaso maskarak ez deust ixten arnasa ondo hartzen, eta tonua apur bat igoten dot, baina ez dago iraintzeko gogorik, ezta inori txarto esateko gogorik be.

Halanda be, niri (*Lehendakariak, kentzeko agindutako berbea*) esaten deustienean. Gaztelaniaz horrek esan gura dau arraren, zaldiaren zakila emearengana daroana estaltzeko unean. Nik neure buruari galdetzen deustat, ez daukalako beste esanahirik, ez dagoalako besterik. Zelako egia defendatzen dozu zuk zuren moduan pentsetan ez dauena iraindu behar badozu? Zertan geratzen da zure ideologia, zertan geratzen dira zure printzipioak, sistema demokratiko baten ezin bada berba egin batek gura dauen indarrez, gura dauen maitasunez. Ze atoa, zure moduan pentsetan ez badau, edo (*Lehendakariak, kentzeko agindutako berbea*) da, askakoa, esker oneko sabela esan deuskue, guk, nire garragaz status quo bat defendiduten dogulako? Hori da Unidos Podemosen egia?

Eta hemen, talde txiki gisa, gehiengoa daukan taldeagaz adeitsuak garala kritiketan deuskue, eskuineko politikak egiten ditugula, 2020an ezer gertatu ez balitz moduan, ezta. Espainiako Gobernu osatzeko egon zan tensinoaz gainera, Euskadin hauteskunde-prozesu bi egon ziran, datak atzeratzea, pandemiak ekarri eban guztia, Espainiako, Euskadiko, Europako administrazio publiko guztietan eragin dauen guztia, Aurrekontuak aldatzea, eta horretan guztian badirudi interes bat egon dala, eta sozialistok bakarrik izan garala adeitsuak une oro.

Nire galdera da, non egon da Gobernuko bigarren presidenteorde jauna, politika sozialetako ministroa, egoitzen politikaren arduradun nagusia, pandemia honetan guztian? Illa jaunaren, osasun ministroaren, atzean ostonduta, berak hutsik ez egiteko, kalterik ez hartzeko? Hori da Unidos Podemosen benetako konpromiso politiko soziala? Twitterren, soflamak esaten, borondateei su emoten ibiltea, hori da herri honek behar dauen ezkerreko politika? Begira, guk uste dogu hobeto dala akordioa, adostasuna, ildo politiko bat indartzea; izan ere, daukagun egoeran, dana airean dagoala, eta ez dakigu, Amaya Fernández andreaki esan deusat, eta egia da, aurten zelan joango dan diru-bilketa, geldialdia PFEZn eta 2020. urte osoan jasoko dogulako, eta 2021ean ikusiko dogu zer gertatuko dan.

Martxan jartzen gabilzana administrazio gisa hartu geinkezan neurri estruktural indartsuak dira, gure ondorengoei ez ixteko zor jasanezina 2050era arte. Zuhurtzia, lehentasuna, eta inor atzean ez ixtea. 2 eurotik bat gizarte-babesera eta politika publikoak blindatzera doa, laguntza hori gehien behar dabenen alde. Ez dau ardura, ez da nahikoa.

Eta, kontuak koadratu behar diranez, zuek esaten deuskuzue 4 gauza egin behar dirala. Lehenengoa, zerga-erreforma. Badakizue 2020an egiteko ginala 2013an eta 2018an onartutako zerga-erreformaren berrikuspena, urte normalak behar ditugula benetan zelan funtzionau dauen ikusteko, eta 2020ak ekarri dauen anormaltasuna kontuan hartuta, 2021ean aztertzea proposatzen da. "Ez dau balio, erreforma egin behar da". Azkarren ibilita be, kutxara dirua dakarren bakarra BEZa da. Baina BEZa ez dago gure esku, Estaduaren esku dago, eta Estaduak esan dau 2022ra arte ez pentsetako ezertan be. Beraz, PFEZa, Ondarearen gaineko Zerga, Soziedadeen gaineko Zerga eta zuk nahi dituzunak aldatzen badoguz be, zerga-bilketako efekturako, holangorik badago, 2 urte beharko dira. Ah! Baina justifikau egin behar da, eta dirua euki behar da, eta diru-kopuru bat jartzen da itsuan, horrek ekarriko dau... galerea be ekarri leike, balitekelako batzuk beste nonbaitera joatea kotizetan. Zuhurtasuna, une honetan ez gagoz arinkerietarako. Ba, handitu daigun zorra!, bale, 298.000.000 konprometiduko doguz, 114.000.000 gehiago, hau balitz bezala, ez dakit, gura dozuna emoteko prest dagoan banku bat. Ez, ez, hau Estaduaren zorra da, Aldundiak ez ziran zorpetze-prozesu horretan sartuko. Negoziazino hori baimendu egin da, baina topea dauka, ekitaldi honetarako eta hurrengorako.

Eta esaten ku, eta gainera, diru-bilketa hain txarra izan ez danez eta apur bat zorpetuta aurre egin ahal deusagunez, ahal doguna egingo dogu horrek udalei kalterik egin ez dien. Eta aurten, Udalkutxaren aurrerapenak, arrisku partekatukoak, funtzionau izan dauen eta funtzionetn dauena, ze zuk esaten dozu: ez, ez, ordaindu daigun guk Bizkaitik, Aldunditik, indartsuagoak gara-ta. Baina bardinak gara ba-ta. Edo nondik elikatzen dira Aldundiaren zergak, Aldundian edo Batzar Nagusietan lan egiten dogunonengandik? Bardinak gara ba-ta. Irabazia badago guztiontzat da, eta galerak badagoz eutsi egingo deutsegu, Aldundiak dinoan moduan, aurten ez da itzuliko, eta itxi daiguzan atzerapenak, itzuli beharrekoa, beste ekitaldi batzuetarako. Eta bien bitartean, sartu daigun dirua udalak ito ez daitezana, eta bitartean erreserba-funtsak daukiezan udalek horretarako erabili dagiezala, ze hori 2012ko Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legeak ez eban onartzen, baina altxau egin da Europak halan erabagita, ezin dogu inor ito eta. Ah!, horrek ez dau balio, ederto.

Baina halanda be, dirua falta danez, Interbiaki aizkorakadea, ez jako dirurik emon behar bere konpromisoetarako. Lantik kanpora, Zugaztel kanpora. Hori da enplegu publikoa sortzea, hau da, etxeko langileak kalera bialduko doguz? Bitxia, oso ondo, ondo goaz.

Ondo da, enplegu-politiketan ez da ezer egiten, eta enplegu-politika aktiboen programa hartzen dozue, hau da, 1.000 personari laguntzea, aholkularitza emon eta jarraipena eginaz, eta kanpora! Partida horretako 2.000.000 kanpora, beste baterako. Badakizue zer dan hau, ezagutzen dozue programa hori?

Orduan, ez neban hona urten gura, ze eta, azkenean, danok gara gure inguruaren subjektu, eta nik ez dot inor mindu nahi, baina ez jat gustetan ni minduterik be, eta

eta gitxiago politikoki, eta nire berbeagaz talde bat ordezkatzeko dodanean, apalduta barik oso harro sentitan naz nazenaz, eta zelan heldu nazen hona, eta zergaitik, eta non nengon zu ez zengozanean. Baina zuztar barik iraindu nagiola, ez.

Beraz, nik espero dot bilkura-egunkarian eskatuko dozula, mesedez, "*Lehendakariak, kentzeko agindutako berbea*" hitza alde batera ixteko, uste dodalako hori zantarkeria morala dala, eta eutsi gura badeutsazu, ulertu daizula kontrakoa irainduz garatzen dan politikak ez dauela ezertarako balio. Nik defendatzen dodan ezkerria berbako ezkerria da, ohorezkoa, aurpegia emoten dauena emon behar danean, beste batzuen atzean ezkututzen ez dana, arriskatzen dauena eta herrialdea egituratzea bilatzen dauena, gai dana akordioak lortzeko Euzko Alderdi Jeltzaleagaz, Alderdi Popularragaz behar danean Estatu-akordio handietan, zuekatz Gobernu be osatzen dogu, baita Euskal Herria Bildugaz be, egoitza honetatik pasau ez arren hemen egiten diran lanetan eragina daukien politiketan.

Politikaren handitasuna ez da erabilten diran berben arabera neurtzen, ekintzen arabera baino, eta hori halan da. Alderdi Sozialistak baietz esaten deutsat txarren dagozantzat pentsautu dagoan aurrekontuari, unerik txarreanean, eta oraindik ezagutzen ez ditugun ondorioak izango ditueanean. Hori da politikaren handitasuna, eta handitasun horregaitik, alde bozkatu ezin badozue be, bozketa egiteko unean oxala absteniduko bazinie. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Otermin. Como ha pedido el señor Otermin, él ha considerado que ha sido ofendido en su dignidad, en la dignidad del grupo al que representa, por lo que yo, de acuerdo con lo establecido en el artículo 100 de nuestro Reglamento, y como él ha solicitado, pediré a la señora De Madariaga Martín que retire esa ofensa, que retire el insulto que ha utilizado. Le pregunto si retira o no el insulto, esa palabra "*Lehendakariak, kentzeko agindutako berbea*", del Diario de Sesiones. Sí, por favor.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTIN** andreak: Nik, lehenengo eta behin, Otermin jaunari esan behar deutsat ez dodala esaten "*Lehendakariak, kentzeko agindutako berbea*" Otermin jaunari berari, Alderdi Sozialistari baino. Ez dot fokalizetan.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es igual, es un insulto, como dice el artículo 100, es un insulto, o bien contra una persona que es juntera o contra un grupo al que representa.

Por favor, silencio. En este momento quien habla es la presidencia, y me corresponde a mí interpretar lo que dice nuestra normativa. Como decía, es una ofensa, hecha no sólo a un juntero, sino que puede ser un insulto a un grupo al que representa. Por lo tanto, la pregunta es, ¿la retira? No la retira. Como me corresponde a mí, le corresponde a esta presidencia decir, interpretar qué es un insulto o qué no es un insulto, no aparecerá esa palabra en el Diario de Sesiones. Gracias.

Siguiendo con el debate y para terminar con el debate, señor Bagan Urtiaga, tien usted la palabra.

El Sr. **BAGAN URTIAGA** jaunak: Buen mediodía, de nuevo.

Ba nik uste dot Gobernu Taldea osatzen dugun alderdiok negoziatzeko eta akordioak lortzeko borondatea euki dogula, eta, nire ustez, mahai gainean proposamen serioak

ipini doguz, ereduakaz bat etorteko modukoak. Nik uste dot zuek izan zariela Aurrekontu honeetan sartu gura izan ez dozuena, hainbat errazoi tarteko dala.

Fernández andrea, nik bai pentsetan dot oingo Alderdi Popularrak ondino zatia falta dauela Bizkaian eta Euskadin akordioak lortzeko prest egoteko.

Elkarrekin Bizkaiari esango neuskio iaz, iazko ekitaldian, Martínez jaunaren politika baliagarriek ez ebela ezelako islarik euki Elkarrekin Bizkaia batzarkide taldean; horren haritik, Bizkairako 2021erako Aurrekontuen proiektuaren aurreko jarrera aurreikusteko modukoa izango litzateke, hain egoera larria bizi dogulako ezbalitz. Eta egoera horren aurrean, aurrekontu-proiektu bat aurkeztu dogu, zuek guztiz baliobakotu dozue, osoko zuzenketa aurkeztu dozue, eta ez dogu bape tarterik ikusi akordiorako. Ze planteamendu maximalistetatik abiatzen zarie, Otermin jaunak zehaztu dituan proposamenak, negoziazioa eragozten daben proposamen maximalistetatik abiatzen zarie, gure ereduaren parte diran proiektuak hausteko eskatzen dozuelako, gizarteak berretsi dauen eredu. Eta apaltasunez dinot, ze ez dakit zer dan programa honi emoten deusan legitimazino soziala. Izan be, zuek esaten dozue Gobernu osatzen dogun alderdiok, eta aurrekontuak aurkeztu ditugunok, 3 bizkaitarretatik 1 ordezkaten dogula. Baina orduan zenbat ordezkaten dituzue zuek zuen eredu onartu behar izan daigun? Apaltasun apur bat, noizean behin.

Nire ustez Bizkaian politika sozialak bermatzen eta horren ardura hartzen dauen alderdi politiko zariela erakutsi gura dozuela, eta Bizkaian, gaur arte, teorizatu baino ez dozue egin. Eta gauza bat da esatea eta beste bat egitea. Estaduko Gobernuan zagozie, eta ikusten gabilz, eta zuek zuek be ikusten zabizie gauza bat dala esatea eta beste bat egitea. Eta egoera korapilatsu horren aurrean, Bizkaian, hori daukagulako esku artean, barriro be kudeaketatik aldendu egin zarie, gaxena kudeatzea dalako, eta bizkaitarengan eragina daukan gauza bakarra. Eta barriro esango deusuet, gizartearen sensibilitadea ez da zuen alderdiaren ondarea bakarrik, gure helburuetan dago. Oin dala urte asko honezkero berba egiten zan Euzko Alderdi Jeltzalean gizarte-askapenaz, erreferentzia izaten jarraitzen daben gizarte-programak bultzatu eta babestu ditugu, eta personak egongo dira aurrerantzean be gure politiken erdigunean. Are gehiago, uste dot Euzko Alderdi Jeltzaleak parte hartzen dauen gobernuetan sustatzen dituen aurrekontuak, gizarte-programak eta politika publikoak nekez bardinduko dabez Estaduko beste gobernu batzuek.

Y a Euskal Herria Bildu, dicen que no hemos tenido voluntad para llegar a acuerdos, pero ¿hay voluntad en Euskal Herria Bildu, voluntad real, voluntad de llegar a acuerdos con el Partido Nacionalista Vasco? No sé, así terminaba yo el año pasado mi segunda intervención. Pues este año lo sé, no hay voluntad, ni el año pasado ni este año. Ez da ezelako borondaterik egon Euzko Alderdi Jeltzaleagaz akordioak lortzeko; orduan ez zan nahi izan, eta orain ez nahi.

Nire ustez, helburua beste bat da, alternatiba gisa proiektatzea. Eta estrategia bat dago, estrategia sistematiko bat EAJ alboratzen ahaleginduteko, eta hori beste tresna bat da. Izan be, egoera korapilatsu honetan, Bizkairako aurrekontuen proiektu osorik zuzentzeko eskatu dozue, marra gorriak egozala-ta. Eta, ez egoan marra gorriak Estaduko Gobernuaren aurrekontu-proiektuan? Gastu-egitasmoak, besteak beste, Abiadura Handiko Trena moduko lanak egitekoa, ez dira oztupo izan, baina hemen marra gorriak dagoz. Eta aurrekontu haretan parte izan zinien, 20.000.000 euro inguruko balioko proiektuak egozan, horreetatik erdiak edo Euskadin eragina eukenak. Eta Nafarroan beste hainbeste, azterlanak egiteko konpromisoak, gai fiskalari eta pensioei buruzko txostenak egiteko konpromisoak. Azken horretan, gainera, Estaduaren eskumen-eremua aitortuta, eta aurrekontuetan partaidetza urri samarra jasoz, 9.400.000 euro.

Hemen mahai gainean euki dozue, nire ustez, proposamen serioak, zuen ereduagaz bat etorteko modukoak: gizarte-ekintzaren esparruan, egoitza-zentroak bizikidetzaz-

unitateen eredura egokitzea, ikuskatzaileen lana, Gallarta egoitza-zentroa eraldatzea; Jasangarritasunaren eta ingurumenaren arloan; nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategiakaz lotutako baso-barritze proiektuak, eraginkortasun energetikoko lanak, 10 milioi euro baino gehiagoko balioa daukienak; eta baztertu egin dozuez. Baina baztertu egin dozuez, Euzko Alderdi Jeltzaleagaz batera agertzea gehiegi dalako. Estaduko beste gobernu batzukaz oso adeitsuak, eta EAJk parte hartzen dauen gobernuakaz guztiz zorrotzak eta zehatzak. Bizkaia eta Euskadi tartean. Baina ez ereduagaitik, ez ideologiagaitik; esandakoagaitik, strategiagaitik.

Baina, tira, guk be gure estrategia daukagu, eta, une honetan, Bizkaiko Lurralde Historikorako 2021ko Aurrekontuen proiektua onartzea da, ziur gagozalako krisiaren ondorioei aurre egiteko eta Bizkaia inklusiboago, lehiakorrago, jasangarriago eta digitalago baten alde lan egiteko aukera emongo deuskula. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Bagan Urriaga. Y terminado el debate, tenemos que someter a votación el dictamen de la Comisión, y tenemos que hacer esa votación departamento por departamento.

Por lo tanto, sometemos a votación el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? ¿Abstenciones? No hay. El resultado es el siguiente: votos emitidos 51; votos a favor, 33; en contra, 18; no ha habido abstenciones. Por tanto, aprobado el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

A continuación, debemos votar el Departamento de Acción Social. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. Por lo tanto, el resultado es el siguiente: en total se han emitido 51 votos; han sido a favor 33, han sido en contra 18, no ha habido abstenciones. Por tanto, aprobado el Departamento de Acción Social.

A continuación, votamos el Departamento de Euskera, Cultura y Deportes. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. El resultado es el siguiente: un total de 51 votos emitidos, 33 a favor, 18 en contra y no hay abstenciones. Por tanto, aprobado el Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.

A continuación, vamos a votar, el Departamento de Hacienda y Finanzas. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. El resultado es el siguiente: un total de 51 votos emitidos, 33 a favor, 18 en contra, no ha habido abstenciones. Por tanto, aprobado el Departamento de Hacienda y Finanzas.

A continuación, votamos, el Departamento de Transportes y Movilidad Sostenible. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. El resultado ha sido de 51 votos. 33 han sido favorables, 18 en contra, no ha habido abstenciones. Por tanto, aprobado el Departamento de Transportes y Promoción de la Movilidad Sostenible.

A continuación, pasamos a votar, el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales. ¿Votos a favor? ¿En contra? No hay abstenciones. Por lo tanto, el resultado es: 51 votos en total; a favor, 33; en contra 18; no ha habido abstenciones. Por tanto, aprobado el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

A continuación, votaremos, el Departamento de Promoción Económica. ¿Votos a favor? ¿En contra? No ha habido abstenciones. Por lo tanto, el resultado es de un total de 51 votos; a favor, 33; en contra 18; no ha habido abstenciones. Por tanto, aprobado el Departamento de Promoción Económica.

Votamos el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad. ¿Votos a favor? ¿En contra? No hay abstenciones. Por lo tanto, el resultado es de 51 votos emitidos;

votos a favor, 33; en contra, 18; no ha habido abstenciones. Por tanto, aprobado el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

A continuación, pasamos a votar, el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. Por lo tanto, resultado: en total se han emitido 51 votos; a favor 33, en contra 18, no ha habido abstenciones. Por tanto, aprobado el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

Y, para terminar, votaremos el texto de los artículos. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. El resultado ha sido, por tanto, un total de 51 votos; a favor, 33; 18 en contra; no ha habido abstenciones. Por tanto, aprobado el Presupuesto del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2021. Enhorabuena, señor Diputado General, y a todo su grupo.

Dicho esto, y aprobado el Presupuesto, hemos terminado el orden del día de esta primera Junta General.

Batzarra 10:32an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 10:32 horas.